

...eta!
Kitto!

2016-X-14

988 zkia.



Zeudenek eta etorritakoe egindako herria

GUZTIZ HORIZONTALA.
OHE MOTA MOTOR
BIKO BERTSIOAN



RELAX- POWER
LIFT MAS SET
KALEFAKZIOA

760€

*Eskaintza
berezia*

zuk behar duzuna

EIBAR
sofásX

Karmen, 15

Hitzaldia

“SUA GORPUTZEAN. Bihotzerrea eta errefluxua. Soluzio berriak aurrea hartu eta gaitz horiek tratatzeko zauri txikiko kirurgiarekin”

Urriak 19
asteazkena

PORTALEA UDAL KULTUR ETXEA

EIBAR, 19:30. Sarrera doan.

JOSÉ LUIS ELÓSEGUI ETA JAVIER MURGOITIO,
POLIKLINIKA GIPUZKOAKO ZIRUJAU OROKOR ETA DIGESTIO-APARATUKOAK

“Zauri txikiko kirurgiari esker bihotzerreari agur esan diezaiokegu”

José Luis Elósegui eta Javier Murgoitio Poliklinika Gipuzkoako zirujau orokor eta digestio-aparatukoek hamar urtetik gorako esperientzia dute digestio-patologietan zauri txikiko kirurgia egiten. Bihotzerreari eta errefluxuari aurre hartu eta gaitz horiek tratatzeko dauden soluzio berrienak gerturatuko dizkigute.

Urriaren 19an, asteazkena, Poliklinika Gipuzkoako José Luis Elósegui eta Javier Murgoitio zirujauak hitzaldia emango dute Portalean, arratsaldeko 19:30ean. Bertan, bihotzerreari eta errefluxuari aurre egin eta zauri txikiko kirurgiaren bidez horiek tratatzeko gaur egun dauden tratamendu berriak azalduko dizkigute.

“Bihotzerrea, piroxis edo errefluxu gastroesofagikoa bezala ezagutzen duguna, esofagoan, bularrezurraren azpian sentitzen dugun mina edo erre-sentsazioa da, eta urdail-azidoen berrahoratzeak eragiten du”, azaldu digu José Luis Elósegui zirujauak; “bestetik, urdaileko mina epigastriorean izaten dugun, hau da, urdailari dagokion aldean, min sentsazioa da eta gastritisak, ultzerak, neoplasiek... eragin dezakete”.

Javier Murgoitio zirujauak esandakoaren arabera, “ondorengok dira errefluxu gastroesofagikoa eragin ditzaketen arrazoietakoz batzuk: fisiologikoa jan eta gero, gizentasuna, koipe ugari duten dietak, kafea, txokolata, gasdun edariak, alkohola, tabakoa, botiak, azido gastrikoaren jariora handitzea (gastritis), haurdunaldia, dismotilitate esofagikoa, EEIren gaitasunik eza (hipotonia) edo hiatoko hernia”.

TRATAMENDUAK

“Bihotzerreari aurre egiteko hainbat tratamendu daude. Hainbat gomendio orokor jarrai daitezke, hala nola, oheburua 15-20 cm igozte, sarri eta gutxiago jatea, jan eta gero ohera sartu aurretik 2-3 or-



MURGOITIO ETA ELOSEGUI DOKTOREAK.

du itxarotea, koipeak, txokolata eta espezieak-pikanteak ekiditea, alkohola, kafea, zitrikoak eta edari gaseosoak uztea, pisua galtzea eta erretzeari uztea”, diote adituek.

“Mediku-tratamendua ere hor dugu, besteak beste, fruta-gatzak, antiazidoak, prozinetikoak, anti H2 edo omeprazola bezalako protoibonben inhibitzaileak hartzea. Tratamendu kirurgikoarekin, berriz, errefluxuaren kontrako mekanismoa sortzen da”, dioskue zirujauak.

“Tratamendu kirurgikoak oso konplikazio gutxi eragiten ditu, azkar buelta gaitzke gure eguneroko jarduerara, bihotzerrea eta gainontzeko sintomak desagertu egiten dira eta aurrez hartzen ari garen medikazioa ken daiteke”, amaitu dute Elósegui eta Murgoitio sendagileek.

“Sarri eta gutxiago jatea, jan eta gero oheratu aurretik 2-3 ordu itxarotea, elikagai koipetsuak, txokolata eta espezieak-pikanteak ekiditea, alkohola, kafea, zitrikoak eta edari gaseosoak uztea”



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Plazaola (1969)

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAU HANKAN.- Lau oinean. Gaztelerazko 'a gatas'. "Mozkorren mozkorraz lau hankan aillegau zan etxera".

LAU-UNE.- Lautada, eremu berdina. "Lau-unia eguala aprobe txau eta hantxe lur hartu eban abionetiak".

astean esanak

"Benetako kezka da 2008an AEBetan gertatu zen hondamendia Txinan errepikatzea. Etxegintzaren sektorea hondoratzea eta haren atzetik finantza sistema arrastaka joatea. Gizartearen desorekak handituko lituzke; inguru batzuetan dagoeneko kezka eragiten du, batez ere meatzaritza indartsuko guneetan, ikatzaren eta altzairuaren beregituraketak kaltetu asko eragin dituelako. Noski, hori gertatuz gero, 2008ko krisia umeen joko bat izango litzateke: munduko ekonomiarentzat ekaiz perfektua izango litzateke"

(WANG JANLIN, ETXE-SUSTATZAILEA)

"Madarikatu egiten dut nire semearen sufrimenduaren ondorioz ikastea lortu dudana ezertxo ere. Moralgabea iruditzen zait horren ondorioz ezer ikasi dudala esatea. Objektiboki bai, bizitza beste era batean ikusten duzu... Baina bi beso emango nituzke gorabehera horien berri ez duen ergel erabateko bat izateagatik eta seme osasuntsu bat izateagatik: seme libre bat, bere askatasunaren zorabioa bizi duena, eta ez dagoena aulki gurpildun batean. Integrazioaz asko hitz egiten da, baina argi izan behar da badagoela elbarri talde bat ez dena inoiz integratuko. Gizarteak integratu behar ditu pertsona horiek"

(ANDRES ABERASTURI, KAZETARIA)

"Alderdi izandako hondamendia ez zen berezkoa izan, antolatua baizik. Uste dut hainbat liderren adierazpenak nahita egindakoak izan zirela, min emateko. Ez zait gustatzen baroiak deituz, ezkerreko alderdi batean noble-tituludako tokirik ez dagoelako. Estrategia horretan Felipe Gonzalezek eginkizun garrantzitsua izan du. Goizez egindako adierazpenek dimisio guztiak ekarri zituzten jarraian. Erreferentetzat izan dudanak, gainera, min handiago eman zidan gauean, berriro galdetuta sarkastikoki erantzun zuenean. Bere hitzek eragin zutena batzuk Jaungoikoa dela uste dutelako izan zela zioen. Gogorra egin zitzaidan hori entzutea"

(MIGUEL DE LOS TOYOS, POLITIKARIA)



PEDRO ALBERDI

Jaiotetxea

Jaiotetxeak xarma berezia du jende askorentzat. Nire kasuan, adibidez, bertan munduratu ninduten, ez *Maternidadean*, eta oso kokagune eta ingurune bitxiak zituela deritzot. Gerran zutik geratutako etxe zahar bat zen, bizitza bakarrekoa.

Helbide ofiziala Fermin Calbeton 22 zuen. Peoraren albo banatan, Bar Kalamua eta Joaquinen fruta-denda; eta aurrez aurre, espaloiairen beste aldean, Larramendiren farmazia. Bigarren solairuan, berriz, atzeko aldera irekitako pasabide luze bat zeukan, Eibarko Txikitara irteteko modua eskaintzen zuena. Horretarako, behin pasabidea ibili eta eraikinetik kanpora, harrizko hogeit bat maila igo behar ziren aurrea, eta gure etxe-atari eta ortuaren artean igaro, hurrena.

Ez dakit zeharbide hura publikoa ala pribatua zen, baina esango nuke gure familiak bakarrik erabiltzen zuela. Goiko aldean, Eibarko Txikitoko muga-barrutian, itxitura bat zegoen, giltzaz zabaldu eta ixten genuena. Hartara, gure etxea irla moduko bat zen, Calbeton eta Txikitoren artean.

Esan bezala, oso zaharra eta bizitza bakarrekoa izateaz gainera, bi bereizgarri zituen atari aurrean: batetik, berdegune dexentea eta hiru madariondo; bestetik, bi sarrera-irteera. Guk biak erabiltzen genituen; Calbetongoa, enkarguak egiteko, eta Eibarko Txikitokoa, jolasteko. Azken horretan, hiru peora bakarrik ziren, baina ume ugari hirurretan. Bertan baita ere, Txantxazelai aldera, Frontoi Zaharreko eskola, lehenengo letrak ikasi genituen *jakituriaren tenplua*.

Ate irekixen jardunaldixa Agifesen

Astelehena Buru Osasunaren Munduko Eguna izan zala eta, Agifese, Buru Gaixotasuna dakenen eta Senidien Gipuzkoako Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Aurten estatu maillako konfederaziñuak proposatu daben "Zu bezalakoa naiz, oraindik ez badakizu ere" goiburuarrekin bat egin dau Agifese, "buruko osasun arazuek denori eragiten deskuela ohartarazi eta gure antzekotasunak ezberdintasunak baiño gehixago dirala jakitera emoteko" asmuarekin. Asmo horrekin astelehenian ate irekixen jardunaldixa egin eben Eibarko Agifesen zentruan, Urkizun.

Ramon Apellaniz Eibarko Agifeseko zuzendaritza batzordeko kidiak aurkezpen laburra egin eta jarraixan, errehabilitaziño psiko-sozialerako zentruan bisita gidatua egin eben, aurten zabaldu daben egoitza barrixaren instalaziñuak ezagutzera emoteko eta, horrekin batera, zentrora jauten direnak eguna zertan emoten daben azaltzeko.



asteko

48

datua

urte bete dira Arrate hotela hondoratu zala. 1968ko urriaren 12xan, 10:30xak aldera, jaso barri eguazen 9 pisuak 5 segundotan bata bestiaren atzetik desagertu ziran; Pilarika eguna zala eta ez eguan iñor biharrian eta, horrerri esker, ez zeban iñork be miñik hartu; kaltiak 10 millioi pezetakuak izan ziran.

Gripearen kontrako kanpaiña barrixa astelehenetik aurrera

Astelehenian aurkeztu eban Donostian 2016ko gripearen kontrako txertaketa kanpaiña Jon Darpon Osasun sailburuak. Aurtengo kanpaiña datorren astelehenian hasiko da eta hillebete biko iraupena izango dau. Aurreko urtiotako martxan, kanpaiña bereziki arrisku tal-diendako abiatu dabe, hau da, 65 urtetik gorakuendako, gaixotasun kronikoren bat dakenendako, haurdun daguazenenendako eta osasun arloko bihargiñendako. Horretarako 380.000 txerto erosi ditu Osakidetzak, erosketa horretan 1.200.000 euro inbertiduta. Sailburuaren berbetan, "iazko kanpaiñian gripiak eragindako arazoren bat euki ebenen artian %63 arrisku taldietakua zan". Aurten erositako dosiekin arrisku taldietan daguazenen %65era aillegatzia espero dabe. Edozelan be, txertoa ipintziaz gain gaixotasuna saihesten laguntzen daben



beste neurri batzuk be badaguazela gogora ekarri eben aurkezpenian, "eskuak sarrittan garbitzia, adibidez". Aurtengo txertaketa kanpaiñiaren irudixa "Star Wars" pelikulan oiñarritutakua da eta goibururako "Gripea ez dezazula lagun izan" esaldixa aukeratu dabe. Atzera be arrisku taldia txertoa ipintziak dakan garrantzixa azpimarratu eban sailburuak, horrendako gripia "gaixotasun larrixa" izan leikialako eta, konplikaziñuak tartian, heriotza be eragin leikialako. Txertoa ipintzeko norberaren osasun zentrorra jauten bihar da txanda eskatzera, osasun txartela aurkeztuta.

Gaztaiari eskindutako ekitaldixak

Debabarreneko artzaintza eta eskualdeko artzainak egiten dabena biharra ezagutzera emateko asmuarekin, udalak eta Debemen Debararreneko Landa Garapen Elkarteak, Mireia Alonso sukaldarixarekin lankidetzan, Debararreneko I. Gazta Astea antolatu da eta astelehenian presentatu eban programia. Atzo abiatu zan egitaraua, pintxo-pote berezixarekin eta jendiak eskualdeko



Astelehenian aurkeztu eban lehelengoz egingo dan jardunaldixa.

gaztak probatzeko aukeria euki eban: Haritz Soduperen Egixa ardi gaztaia (Itziar), Enrike Gisasolaren Sosola ardi gaztaia (Eibar), Iñaki Ansolaren Mausitxa ardi gaztaia (Elgoibar), Beñat Egañaren Goienetxe ardi gaztaia (Murtiku), Nagore Martinen Egotza ahuntz gaztaia (Soraluze) eta Ruben Markinaren Mallegoi behi gaztaia (Mallabia).

Gaur arratsaldian, 19:30xetan Idiazabal Jatorri Izendapena dakan gaztaia dastaketa gidatua egingo da udaletxian, M^a Victoria Urrestik zuzenduta. Urresti, Idiazabal Jatorri Izendapeneko katatzaille ofiziala da eta, horrez gain, azaruaren 16tik 18ra Donostian ospatuko dan International Cheese Festival-eko epaimahaikide be izango da. Eta domekan, Debararreneko I. Gaztaia Astea agurtzeko, Untzagan ipiñiko dabena karpan Debararreneko Gaztaia Azoka egingo da, eskual-

deko gaztagilliekin. Gaztaia ezbaridiñak bertatik bertara ezagutzeko aukeria izatiaz gain, nahi dabena azokako gaztaiak probatzeko aukeria be eukiko dau, 5 euro ordainduta. Erakustaldixak be antolatu dittue: ogixa egiteko prozesua, Sosola basarriko Aizpearen eskutik; gaztaia egiteko prozesua, Elgoibarko Mausitxa basarriko Iñaki Ansolaren eskutik; eta artillea lantzeko prozesua eta tinta-ketia, Miren Torrealdayren (Ardilanak) eskutik. Horrekin batera, goizeko 11:00ak aldera Eibarko Mandiola Goikoa basarriko artaldia Matsarixara ailegauko da eta herriko kaliak ziharkatuko dittue ardiak (hau da ibilbidia: Matsarixa, Ibagain, Blas Etxeberria (Pagae-gi), Coliseoko atzekaldia, Errebal, San Juan eta Untzaga. Bueltakua: Calbeton, Bidebarrieta, San Agustin, Coliseo, Blas Etxeberria, Ibagain eta Matsarixa).

autuan



3.000 euro Haitira

Beste hondamendi batzuk gertatu diranian egindakuren bidetik, Eibarko Udalak 3.000 euro bialduko dittu Haitira, kaltetutakueri laguntzeko. Eibar-Ermua Gurutze Gorriak bideratuko dau diru-laguntza.

Azuetara bisitak

Eibarko EH Bilduk herriko azuetara bisitak egiteko martxari helduko detsa atzera be eta eguaztenian, 17:00etan Jardinieta eta Matzarixara juango dirala emon dabe aditzera. Inguruan bizi dan baten batek eurekin batera juatia nahi izanez gero, h6nek dira kontakturako bidiak: bildu@eibar.eus / ilamarain@eibar.eus / gerrasti@eibar.eus / 943708428.

klaus

943-105810

info@klauseibar.com

www.klauseibar.com



Estazi6no, 3

denda proiektuak dekorazioa erreformak



Gabonetako oterra, lujuzko egonaldi eta guzti!

Aurreko astian presentau eben ...eta kitto! Euskara Elkartek, El Corte Inglesaren laguntasunari esker, aurtengo Gabonetan zozketatuko dabene oterra. Euskara alkartariaren izenian jardun eban Maitane Aranberri El Corte Inglesari "eskerrik beruenak" emonda hasi zan berbetan, "aurten be gurekin bat egin eta euren babesa emotia erabagi dabelako. El Corte Inglesak emondako produktuekin 2.000 euro balixo dabene oterra osatu ahal izan dogu eta, aurreko urtiotan bezala, denetarik izango dau: goxua, gazixa, edarixak, konserbak, hestekixak, turroiak... dan-dana kalidade gorenekoa". Aurten, barritasun modura, telebistaren ordeztu beste opari bat emotia erabagi dabe: "Otarrak aurten izango dabene saririk potoluena Elciegon (Errioxan) Marques

de Riscalen dakan hotelian (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaba pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosarixa barne) izango da". El Corte Inglesa ordezkatzene egon zan Maitane Diezek, bestalde, ...eta kitto!-ri pozik laguntzen desela azaldu eban, "denda izatetik haratago, betidanik ahalegindu gara herrixan antolatzen diran ekitaldixeri ahal dan neurrixan laguntzen eta Eibarren horren ezaguna dan ...eta kitto!-rekin alkarlanian gustora ibiltzen gara".

Zozketarako txartelak saltzen hasitta dagoz, euro batian, ohiko tokixetan: denda, taberna eta hainbat establezimendutan eta, horrez gain, ...eta kitto!-ko lantaldia be kalia saltzen ibilliko da. Zozketia, barriz, abenduaren 14an egingo da eta irabazliak 15 eguneko epia izango dau sarixa jasotzeko. Antolatzailliak herritar guztiak zozketarako txartelak erositera animau nahi dittue, "holan ...eta kitto! Euskara Elkarteari laguntza emoteko. Izan be, errifak salduta lortzen dogun dirua urte osuan euskeria sustatzeko garatzen dittugun jarduerak antolatzeko erabilliko dogula gogora ekarri nahi dogu eta, beraz, txartelak erositta, sari edarra irabazteko aukera izatiaz gain, gure proiektuari lagundu eta babesa emongo detse".



Maidar Aranberri eta Maitane Diez aurkezpenian.

Jeltzalien donaziñua jaso dau Arnasak

Eibarko EAJ-PNVko eta Arnasa Gipuzkoako fibrosi kistikuaren alkarteko ordezkariak Batzokixan alkartu ziran astelehenian, "euren jardueraz berba egin eta Arrate egunian (Fibrosi Kistikuaren 2016 Nazioarteko Egundian) ipiñitako txosnan bildu genduan dirua emoteko". Ekitaldixan Josu Mendicute, Elena Ibañez eta Igone Lazpita jeltzaliak Arnasa alkarteko ordezkari xeri, Oscar Padura eta Xabier Bastidari txekia emon zetsen, batutako diru hori alkartari laguntzeko erabilli deixen eta, horrekin batera, eskerrak emon nahi detsez Arrate egundian txosnara juanda euren laguntasuna emon eben eibartar guztieri.



Estoldak eztanda egin eban Errebalian

Astelehenian, 19:30xak aldera Errebal kalia, San Agustin kaleko bidegurutzetik gertu leherketa gertatu zan eta, horren eragiñez, Iberdrolaren estolda-tapa airian gora hegan juan zan, lagun biri zauri ariñak eraginda. Zauritu bixak Mendaroko Ospitalera eruan zittuen larrialdi zerbitzueta kuak. Estolda-zulotik sua urtetzen hasi eta segiduan aillegau ziran suhiltzailliak, baiña suak argindarraren kable batzuk erre zittuala eta, inguruko etxietan argi barik egon ziran arazua kontontzia lortu eben arte.




Saudi Arabiako delegaziñua Armerixa Eskolaren sarrerian.

Muhayil Collegeko ikasliak Armerixa Eskolan

Saudi Arabian dagan Muhayil herriko Lanbide Heziketako ikasle eta irakasle talde bat Armerixa Eskolan egon da zentroko instalaziñuak bisitatzen eta, eskolako ordezkari xen berbetan, "eskolaren historixia kontatiaz gain, hirueledun eredu ko irakasliekin batera 3D Laborategixa eta Elektrizidade Sailla (automatizaziñua eta industria-robotika eta instalaziño elektrikuak) erakutsi detseguz". Urtero emoten diran Mondragon Awards sarixen aitzakixarekin etorri dira bidaian eta, bide batez, Euskal Herrixan emongo dittuen egunak hamengo errealidade akademiko, sozial eta ekonomikua bertatik bertara ezagutzeko aprobetxauko dittue.

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Bazkari Solidarixua, bixar Untzagan

Bixar egingo da III. Bazkari Solidarixua- Jana ez da txantxa, Aldatzen eta Egoaizia alkartiak antolatuta Piurako (Peru) nekazari komunitatieri babesa emoteko asmuarekin. Untzagako karpan izango da eta bazkarirako bidezko merkataritzako eta bertoko pro-

duktu ekologikuek erabiliko ditue. Mireia Alonso sukaldarixak, arroza prestatu ez eze, umiendako taillarra be emongo dau 12:00etatik aurrera eta beste jarduera batzuk be antolatu ditue, bazkarixa girotzeko: bidezko merkataritzako produktuen salmen-

ta, txokolate degustaziñua, Badut ipuin-kontalarixa, zozketak, bertsoak (Manu Goigana eta Eli Pagolaren eskutik), Los Soraluceños eta Mugi Panderoa taldien emanaldiak... Bazkarirako txartelak 10 euro balixo dau (7 euro ume, langabetu eta jubilauendako) eta Plato Zero dalakuekin laguntzeko aukeria be egingo da.

III. BAZKARI SOLIDARIOA

Jana ez da txantxa

colabora con las comunidades campesinas de Perú



Aho-Hortzen III. Osasun Jardunaldixa

Hillak 21ian Aho-Hortzen III. Osasun Jardunaldixa egingo da Debabarrena ESlan, Maitena Urberuaga odontologuak antolatuta. Topaketia Mendaroko Ospitaleko areto nagusixan izango da eta Juan Manuel Sanzo, erakunde horretako zuzendari medikuak egingo daben aurkezpenarekin hasiko da. Jarraixan berba egingo daben hizlarixak arlo horretan erreferentxiak dira eta tartian Paco Etxeberría egingo da, auzitegiko odontologixaren inguruan berba

egitteko. Bestela be hortzak zaintzeko zerbitzuetan gaurkotasun haundixa daken gaixeri helduko detse: hortzoiaren gaitortasuna eta goiz erditzeko arriskua, pazientearen segurtasuna, gaixotasun sistemikoak eta ahua, ebidentzian oiñarritutako odontologixa, auzitegiko odontologixa eta lehen maillako pazienteak zelan artatu, bestiak beste.



Gaixorik daguezen presuekin bat egiñaz

Mendaroko Ospitaleko bihargiñak, osasun arloko beste batzuk bezala, gaixorik daguezen presuekin bat egin eben aurreko astian eta, horrekin batera, SARE-k deittuta bixar Donostian egingo dan manifestaziñora juateko deia egin zetsen herritarri. Eibartik manifestaziñora juateko antolatu dituen autobusak, bestalde, Ego Gaiñetik urtengo dira bixar, 15:00etan (aurretik izena emon bihar zan).

"Goza daiteke gehiago - Euskaldun baten hizkuntza bidaia" goiburua daraman liburuari buruz jardungo du Karmelo Ayesta zeberioarrak urriaren 25an ...eta kitto!ko lokaletan, 19:00etatik aurrera. Hitzaldian, hori nahi izanez gero, euskararen erabilera erraz areagotu dezakegula frogatzen saiatuko da. Bere ustetan motibazioa da euskalduntze-bidaian arrakasta izateko gakoa.

- Titulua irakurrita zeure bizitzan eraldatze-prozesu bat egon dela eta euskararekiko konpromiso sendoa duzula ematen du. Zer kontatzen duzu liburuan?

Nire belaunaldiko pertsona askok bezala, euskalduna izatea erabaki nuen une batean. Erabaki hori aurrera eramateko, ezinbestekoa da norberaren konpromiso sendoa, hau da, norberak hartzea aldatze-prozesu horren erantzukizuna. *Gozatu* aditzak bi esanahi ditu liburua tituluaren. Lehena *erabili* da: *Goza daiteke gehiago* diodanean esan nahi dut askoz gehiago erabil daitekeela euskara, hori erabakiz gero. Bigarren adiera *ondo pasa, disfrutatu* da. Sarri lotu da euskara bihozminarekin, nahigabearekin edo nekearekin. Askok, ostera, gozatu egiten dugu euskararekin; eta konbentziturata nago euskara gozamenarekin eta emozio positiboekin lotzea dela erabilera areagotzeko bidea. Ideia horiek dira liburuan azaltzen ditudanak.

- Nola sortu zen liburua idazteko ideia?

Liburua argitaratzea ustekabea izan zen. Ni automobilgintzan aritu naiz urte askotan. Idazlanak egiten hasi nintzen, bi asmo nagusirekin: alde batetik, euskararen gaineko ideiak argitu nahi nituen eta ingurukoei (senideei eta lagunei) azaldu nahi nien eskarmentuz ikasitakoa, eta, beste alde batetik, euskara landu nahi nuen, idazlanen bitartez. Lagunek animatu ninduten idazlanak argitaratzea eta hortik sortu zen liburua.

- Nola ikusten duzu euskalgintzan diharduten taldeek euskararen normalizazioan egiten diharduten lana?

Lan ikaragarria egin da eta aurrerapauso handiak eman dira, zalantza barik. Hala eta guztiz ere, eginikoa ez da nahikoa izan euskararen erabilera normalizatzeko eta urrats berriak emateko ordua heldu da. Adostasun zabalago dago diagnosian eta diskurtsoan. Nire iritzian, gakoa da diskurtsoa praktikara eramatea: oso garrantzitsua izango da, alde batetik, eragile guztiak inplikatzeko eta denok norabide berean lan egitea, eta, bestetik, hiztun-komunitatea aktibatzea, hizkuntza-jokabide ereduak erabiltzeko.



Urriaren 25ean Eibarren izango da Karmelo Ayesta.

- Zeinen esku dago zeure ustez erabilera indartzea?

Eragile asko daude eta guztiak dira garrantzitsuak. Gizartean eragin handia dute agintariak (hizkuntza-politikak, arauak eta legeak onartzen baitituzte), euskalgintzak, gizarte-erakundeak, komunikabideak, iritzi-liderrak eta abar. Hala eta guztiz ere, liburuan azpimarratzen dut euskal hiztunok dugula euskararen erabilera areagotzeko erantzukizuna eta ahalmena. Izan ere, Arrigorriagan esaterako, gizarte-eragileen eragina berdina izanda, euskaldun batzuk euskaraz bizi dira, eta beste batzuek, ostera, ez dute euskara ia inoiz erabiltzen. Nire iritzian, pertsona libreak gara eta gure esku dago, neurri handi batean, euskara erabiltzea edo ez. Gainera, norberaren erudia da besteengan eragiteko

modurik eraginkorrena: *lehenik heuk egin, gero besteei eragin.*

- Erabilera handitzeko berba egitea nahikoa da? Zeintzuk dira zure ustez gakoak?

Oraindik aurreiritzi eta gizarte-arau inplizitu asko aldatu behar dira euskararen erabilera normalizatzeko. Hizkuntza gutxituen hiztunok barneratuta ditugu hizkuntza-jokabide anormalak. Esate baterako, ez badakigu aurrekoak euskarara erabili nahi duen edo ez, erdaraz egiten dugu, badaezpada; edo euskaraz egin eta solaskidea ez bada gai euskaraz erantzuteko, geuk eskatzen diogu barkamena, euskara erabiltzeagatik. Euskararen erabilera areagotzeko, portaera aserti-boak zabaldu behar ditugu, besteak erasotu gabe, baina besteekiko menpekotasunik gabe jardunez.

Eibarren
berrero

ORAIN "Tipi-Tapa, Korrika"
LAN BERRIAREKIN

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten
BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA
urriaren 17tik 27ra (7'50 euro)
...eta kitto!-n salgai: BAZKIDE BAKOITZAK 3 SARRERA GEHIENEZ
ORDUTEGIA: 10.00-14.00 eta 16.00-19.30

GAINONTZEKOAK

urriaren 28tik
aurrera
(8'00 euro)

El Tío Palancas
(JUAN GISASOLA)
Penetik (URKIZU)
eta Gozoki
(BIBEARRIETA ETA
SOSTOATARRIN)

azaroak 12
ZAPATUA
16.30 eta
19.00

azaroak 13
DOMEKA
16.00 eta
18.30

Pirritx,
Porrotx
eta Marimotots

Zure enpresa erakusteko
leku aparta


GIDA

KOMERTZIALA 2017

Eibarko ETXE GUZTIETAN eta
herriko komertzio, enpresa,
bulego, ikastetxe, osasun-
zentro... guztietan banatzen da



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76
www.etakitto.eus



Ane Moreira (hezitzailea)

"Zapatuetako tailerretan umeek ondo pasatu eta lagun berriak egiten dituzte"

Urriaren 22an hasiko dira Eibarko Udaleko Haurreria eta Gazteria Sailak eta Astixa Aisialdi taldeak antolatzen dituzten udazkeneko "Zapatuetako tailerrak". Tailer horietan 5 eta 11 urte bitarteko haurrek hartzen dute parte, eskulanak eta dantza garaikidea egiteko aukerarekin. Ane Moreira tailer horietako monitoretako bat da. Haur Hezkuntza eta LH ikasketak egin zituen eta Astixak antolatutako hainbat jardueretan dihardu monitore hainbeste gustatzen zaiona egiten: haurrekin lan egitea, hain zuzen.



- Iaz zapatuetako tailer bat eman zenuen eta aurten ere hor egongo zara. Zer emango duzu oraingoan?

Iaz 6. mailakoekin egon nintzen eta maketak egin genituen. Aurten 2. mailakoekin egongo naiz eta foamy egingo dugu, goma evarekin eskulanak. Eredu batzuei jarraituta gauza desberdinak egingo dituzte: erloju bat, logelan jartzeko euren izenak...

- Zelan antolatzen dira zapatuetako tailerrak?

Adinaren arabera antolatzen dira eta txikiak, 5 eta 6 urtekoak, gurasoekin etortzen dira. Bigarren mailatik aurrera, bakarrik etortzen dira. Talde bakoitzean gutxienez 8 haur eta gehienez 15 egoten dira. Tailer bakoitzak 3 saio izango ditu (urriaren 22an, 29an eta azaroaren 5ean) eta ordu-tegi desberdinak izango dira aukeran: goizean 2 talde eta arratsaldean talde bat. Eskulan tailerrak (foamy, harriak margotu eta apaindu, goma espuma) Astixako monitoreek emango ditugu eta dantza garaikideko tailerrak Biraka eta Ipuruako Dantza Garaikide taldekoak arduratzen dira.

- Zeintzuk dira zapatuetako tailerren helburuak?

Lehenik eta behin umeek ondo pasatzea eta euskara lantzea. Horretaz gain, ikastetxe desberdinetako umeak elkarrekin egoteko eta elkar ezagutzeko aukera paregabea da. Aisiladian egiten den jardueraren denez, lasai egoteko eta lagun berriak egiteko une eta toki egokia da. Oso

ondo pasatzen dute. Joan den urtean, amaieran, inkesta bat pasatu genien eta balorazio guztiak oso positiboak izan ziren. Saio motzak dira, ordu eta erdikoak, eta konturau barik pasatzen dira. Hauek udazkeneko tailerrak dira, baina neguan ere beste batzuk egingo ditugu. Udazken eta neguko zapatuetarako plan polita da, zailtzarik gabe.

- Txikiak gurasoekin joaten dira...

Guraso askok denbora gutxi eukitzen dute umeekin egoteko, eta zapatuan euren umearekin momentutxo bat konpartitzeko aukera izatea oso ondo dagoela iruditzen zaie. Momentu polita da. Nik gogoratzen dut txikitik nire amarekin antzerako esperientzia bat konpartitu nuela, eta oraindik biok gogoratzen dugu.

- Umeekin lan egitea gustuko duzu, ezta?

Lehenengo lehen hezkuntza eta gero haur hezkuntza egin nuen. Amaitu eta berehala hasi nintzen Astixan lanean, eta 4 urte daramatzat jarduera deberdinetan lan egiten. Horretaz gain jantokiko monitorea ere banaiz. Beraz, beti haurrekin harremanetan. Gustatzen zait umeekin egotea, nirekin bat datorren gauza bat da. Adinaren arabera, haurrek gauza desberdinak ematen dizkizute. Txikiak afektoa ematen dizute eta nagusiekin gauza askori buruz hitzegin dezakezu. Oso gustora nago eurekin eta, orokorrean, oso ondo portatzen dira.

Mertxe Bilbao Aranzabal

(2016-IX-29)

**"Gure artean ez bazaude ere,
GUREKIN zaitugu BETI"**

ZURE FAMILIXA



Eroa Naizen, Garrapata eta The Rockos **ZUZENEAN**

Zapatu gauerako rock kontzertua antolatuta dute Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak, herriko hiru taldeekin: Eroa Naizen, Garrapata eta The Rockos taldeen musikarekin zuzenean gozatzeko aukera izango da Txaltxa-Zelaian, 22:00etatik aurrera. Eroa Naizen izenaren atzean hiru musikariren proiektu esperimentalak dago. Garrapata, berriz, 2004an sortu zen, punk musika gustoko zuten lagun batzuk elkartu eta jotzen hastea bururatu zitzaizkionean. Eta behin taldea osatuta, euren gustoko musika jotzeari ekin zioten: Eskorbuto, R.I.P., Cicatriz eta horrelakoen kantuak gustora jo arren, euren abestiak sortzen joan dira. Horietako batzuk Legarreko estudioan grabatu eta diskoa kaleratu zuten eta Eibarren eskaini zuten lehen kontzertua auzo horretako jaietan izan zen. Eta hirugarren taldea, The Rockos, Eibar eta Er-



Eroa Naizen

mua artean, erdibidean dago, taldekideak toki bietakoak dira eta: Sergio Garbayo (bajua eta ahotsa), Urtzi Lamariano (gitarra), Iker Garcia (gitarra), Unai Cabanzon (tronpeta) eta Markel Corral (bateria) musikariek osatzen dute rocka egiten duen taldea eta aurretik ere izan da euren musikarekin herrian gozatzeko aukerarik, besteak beste, Ustekaberen 15. urteurrenean eman zuten kontzertuan.

Hiru taldeak batzen dituen elementu komuna Legarreko gune musikala da. Herriko taldeentzat entsegu gune modura 1996an sortu zen espazioak 400 bat metro karratu ditu eta bederatzi entsegu-gela eta grabazioak egiteko kabina dauzka. Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak berak kudeatzen du gunearen erabilera eta entsegu lokal bakoitzean talde batek baino gehiagok jarduten du, asteko egun eta ordutegiak txandakatuta.

Hiru taldeak batzen dituen elementu komuna Legarreko gune musikala da. Herriko taldeentzat entsegu gune modura 1996an sortu zen espazioak 400 bat metro karratu ditu eta bederatzi entsegu-gela eta grabazioak egiteko kabina dauzka. Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak berak kudeatzen du gunearen erabilera eta entsegu lokal bakoitzean talde batek baino gehiagok jarduten du, asteko egun eta ordutegiak txandakatuta.

Hiru taldeak batzen dituen elementu komuna Legarreko gune musikala da. Herriko taldeentzat entsegu gune modura 1996an sortu zen espazioak 400 bat metro karratu ditu eta bederatzi entsegu-gela eta grabazioak egiteko kabina dauzka. Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak berak kudeatzen du gunearen erabilera eta entsegu lokal bakoitzean talde batek baino gehiagok jarduten du, asteko egun eta ordutegiak txandakatuta.



Garrapata



The Rockos

Hasteko da Hazilan proiektuaren bigarren edizioa

Gazteei lanean hasteko errezetasnak emateko asmoz Debegean abiatu zuten Hazilan proiektuaren bigarren edizioa martxan hastear dago, baina izen-emateko epea gaur arte luzatu dute arduradunek. Parte hartzeko interesa duten gazte-

ek online eman dezakete izena, debegesa.eus webgunearen bitartez. Hazilan proiektua goi mailako ikasketak dituzten (unibertsitate titulua edo goi mailako prestakuntza zikloa) eta lana aurkitu ezinik dabilen 20 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Arduradunen berbetan, "hautatutako lagunek prestakuntza pertsonalizatua jasoko dute. Lehen fase batean, euren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko trebakuntza jasoko dute, lan mundura sartzea erraztuko dieten erreminten bitartez, eta, bigarren fase batean, enpresetan praktikak egingo dituzte edo proiekturen bat garatuko dute. Horrela, lan munduko errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izango dute". Lehendabiziko edizioak izandako emaitzarekin pozik daude: parte hartu zuten 13 lagunek lan-kontratua edo lan-praktikak lortu zituzten, profesionalki garatu ahal izateko.

Hazilan proiektua Euskadiko Programa Operatiboaren baitan kokatzen da eta Europako Gizarte Funtzak finantzatzen du %50ean. Proiektua Garapen garapenerako agentzien euskal elkarteak koordinatzen du.



Gerra aurreko "La Voz de Guipuzcoan" idazten zeban Tomas Etxaluzeren bi kolaboraziño honek sasoi hartako girora eramaten gaittue. Batian, 1934ko apirilaren 14kuan, Maeztu idazliaren jarrera-aldaketia kritikatzan dau. Bestian, 1935eko julixuaren 18kuan, errekan gertatutako istripu larri baten barri emoten desku. **Eibarko Udal Artxiboan** gordetzen dira halako testuak, gure herrixa hobeto ezagutzeko aukeria emoten deskuenak.

Orma batek bost lagun hartu dittu azpixon: bi hildako

Atzo, arratsaldeko laurak laurden gutxiaguetan, istripu larrixa izan zan Eibarren, eta bertan 17 urteko gaztia eta zazpi urteko mutilla hil ziran, eta larri zauritu zan beste mutil bat eta lesiño hain larrixak ez ziranekin beste bi mindu ziran. Aittatutako ordu horretan "Presa Gulfi" deittutako tokixan eguazen guztiak baiñua hartzen, beste batzuk kanpuan zeguazen bittartian igerixan ebizeneri begira edo toalliakin sikatzen. Derrepentian zarata haundixa entzun zan eta Arruabarrena eta Iriondo jaunen taillarraren atzeko aldeko paretaren zatixa jausi zan, horma horren kontra pillatutako harrixak eta lur asko mutillen gaiñera jausteko, eta euretako bost azpixon harrapatu zittuen.

Kanpoko beste mutil guztiak garrasika hasi ziran, laguntasuna eske eta, horrekin eta horma jaustian etara eban zaratiarekin, auzuan bizi ziran andra asko heldu ziran

segidan istripuaren tokira, aldameneko fabrikako bihargiñekin batera. Danak, alkarril lagunduta, hasi ziran lur azpixon zeguazena etaraten. Istripu larrixan kaltetuak handik gertu dagan Ospital-Asilora eruan zittuezen eta bestiak Inspeziñora eruan, bertan sendagilliak artatzeko. Lur eta harri azpittik etaratako guztiak hainbat zauri zeken eta buruan konortia erdi galduta eguazen. Ospitalera heldu eta ordu erdira hil ziran Eusebio Odal, 17 urtekoa, eta Enrique Baroja, 7kua. Jose M^a Leon Ruiz, 8 urtekoa, harri azpittik etaratakua hau be, larri dago eta Arrillaga doktoriaren klinikara eruan zeben. Istripuan izandako beste biktimak -Jorge Bolunburu, 5 urtekoa, eta Fernando Muñoa, 46kua- hain larrixak ez ziran lesiñoak izan zittuzten eta, behin lehelengo zaintzak jaso eta gero, euren etxietara eruan zittuen.

Istripu larri horren zegatixa Arruabarrena eta Iriondo jaunen enpresaren atzeko ormarren kontra pillatutako lurak egindako presiñua izan zan. Hórrek lurrok enpresako finkaren patixuan egitten diharduen obretatik datoz. Barrixa berihala zabaldu zan herrixan eta min haundixa eragin zeban eibartar guztien artian. Alkatiak, dolua adierazteko, gabeko dantza-saiua bertan behera lagatzia agindu zeban. Probintziako gobernadore zibillak, bestalde, alkatiarekin berba egin eta gero biktimen famelixer dolumiñak emoteko eskatu zetsan eta baita haren ordezkaritza eramateko hiletetan.

Gaur, arratsaldeko ordu batetan, Eusebio Otalen hilleta zibilla egingo da komitibia hildakuaeren etxetik (Pablo Iglesia, 9 zenbakixa) abiatuta. Arratsaldeko hiruretan, bestalde, egingo da Enrique Baroja beste biktimaren hilleta, honako hau katolikua.



1936. urtian Kakalardokuan eibartarrok igerilekua izan genduan. Zoritxarrez, ez zeban luzaro igaro, ez gerriagaittik, baizik eta uretara botatzen ziran isurketa toxikuengaittik. Hori ikusitta, itxi egin zeben. **Indalezio Ojaguren Fondoa**

Bi Maeztu oso desbardin

"Mende laurden da argazki hori etara ebela Eibarko estaziño nasan. Hor dago Ramiro de Maeztu, gaur diputatu monarkikua Gipuzkuatik. Jose Madinabeitia doktoria, Urrejola Bilboko zinegotzi sozialista eta Eibarko Amuategi Eibarko sozialista, azken hau be ziñegotzixa, onduan zittuala. Argazkixan Indalecio Prieto falta da, orduan El Liberal-eko takigrafua zana, eta Madinabeitiari eta Maezturi Bilbotik lagundu zetsena. Maeztuk hitzaldixa emon bihar zeban "El señorito español" gaixaren inguruan. Hitzaldixa iraultzaille gisakua izan bihar zan, baiña Maeztuk benetan egin zebana, bigilixa luze eta emaitzarik bakuaren ondoren -holan kontatu dau grazia guztiarekin Prietok oin dala egun gitxi-, izan zan Hegoamerikako egunkari baten publikatutako artikulua irakorri.

Maeztuk sasoi hartan anarkista sentimentala zala esaten zeban eta orduan be izan zan -uste dot Baroja izan zala- idazlia arrarokerixetara emondakua zala bizitza sozialian baiezatzan zebana, bere doktriñarekin guztiz lotuta zoialakuan. Maeztu hartatik sortu da beste hau, monarkikua, diktatoriala eta batikanista. Eta, aurreko guztiarekin batera, Ortégaren ideien kopiazaillia, bere komenientzia politikuaren arabera erabiltzen dittuenak, oin dala egun gitxi batzuk gertatu dan moduan Euskal Estatuan Arabaren aportaziñuaz jarduterakuan. Maeztu "bat etorri da" Jose Ortega y Gasset-ek, oin dala ez dakit zenbat urte ia, botatako argumentu batekin; hori bai, modu garrantzi-



Ramito de Maeztu idazlia Eibarko tren geltokian, 1914an gure herrira etorri zanian, Madinabeitia ("Txikillana" jendiarentzat), Eulogio Urrejola eta Akilino Amuategirekin. **Indalezio Ojaguren Fondoa**

tsuan berori deformatu ondoren eta lasai asko geratu eta gero. Horregaittik eta beste askorengaittik, pintoreskua iruditu jaku Maeztu haren irudixa, aspaldi hildakua eta, urte batzuk geruago, barrero haragizkua bihurtuta Primo de Riverak izendatutako militarra balitz moduan; eta hori bai, batikanista hutsa".

Migraziñueri eta Kultura Ondarieri buruzko gogoeta egitteko aukeria eukiko dogu Gipuzkoako herri askotan, asmo horrekin antolatu dittuen Ondarearen Europako Jardunaldixereri esker. Horren harira Eibarren antolatu daberen ekitaldixa datorren astian, hillak 20xan egingo da, Portaleko 5. pisuan dagan Armagintzaren Museuan eta nahi daberen parte hartzeko aukeria dauka oindiok, izen-erotia astelehenera arte zabalik egingo da eta. Zalantza barik, saio interesantia izango da, batez be sasoi batian, hamengo taillarretan biharra soberan egon zanian gurera horrenbeste etorkin erakarri zittuan fenomenua eta horren eragiña hobeto ezagutu nahi daberenendako.



1964ko irudixa, autobusekin Txaltxa-Zelaixan. Plazaola

Migraziñua eta patrimonixua lotzeko primerako aitzakixa

“Migrazioak eta Ondare Kulturala” goiburuari jarraituta antolatu diran Ondarearen Europako Jardunaldixen harira, Eibarren topaketia egingo da datorren astian, eguenian, 18:00etatik aurrera Arma-

gintzaren Museuan. Topaketiak antolatzen jardun daberen berbetan, *“Eibarren urterik urte sortzen eta eratzen doian kultur paisajari buruzko hausnarketia eragin nahi dogu”*.

Parte hartzeko deialdixa herriko alkarte, eragille eta kultur erakundieri zabalik dago, *“migraziñuak ondare kulturalian zelan eragin daberen eta, alderantziz, ondareak migraziñuari zelan eragin detsan danon artian aztertzeko”*. Eta horretarako Museuan daguaz hainbat objektu erabiliko dittue, hórrek oiñarri modura hartu eta hortik abiatuta eztabaida sortzeko asmuarekin. Abiapuntua, barriz, *“ondare industriala eta biharra”* izango dirala aurreratu dabe, *“hortik abiatuta gure ondare kulturala marrazten daberen hainbat gai jorrazteko tartia zabalteko”*.

Saiua dinamizatzeko arduria Gorka Morenok, Ikuspegi-Inmigraziñuaren Euskal Behatokiko zuzendarixak eukiko dau eta programa honeri jarraituko detse: 18:00etan ongietorrixa egin eta gaixa testuinguruan kokatzeko azalpen laburra emon eta gero, taldeka egingo dira eztabaidak hasiko dira (18:15ean). Ordubeteko tar-



tia emongo detse parte hartzen dabeneri eztabaida hórrek egitteko eta, ondoren, 19:15ean ondorio nagusixak azaltzen juango dira. Eta ekitaldixa agurtu baiño lehen, mahai-ingurua egingo da, 19:45ean hasitta. Baten batek informaziño gehixago nahi izanez gero Museora jo leike eta izena emoteko aukeria be badago oindiok (urriaren 17ra arte), museoa@eibar.eus helbidera idatzi edo 943708446 telefonora deittuta.

Topaketiak gure herrixaren historixia hobeto ezagutzeko bidia emongo dau. Izan be, Eibarren patrimonixua eta inmigraziñua urte askuan eskutik oratuta juan dira eta, horregaittik, derrigorrez sortu bihar ziran gauza bixen arteko loturak, eta ez gixi, gaiñera. Eta gustau ala ez, aurreko mendeko erdialdera Eibarrek ezagutu eban migraziñuaren fenomenuak herrixaren itxuriari ez eze, bere izaerari be eragin zetsan, herrixaren historixian aztarna sakona lagata, gaiñera.



Bada autore bat gure herrixa gehixen hazi zan urtietako billakaeria azaltzen dabena. **Eusebio Garcia Manrique** da bera, gaur egun agortuta dagan *"EIBAR, Inmigración y desarrollo urbano e industrial"* liburua 1960ko hamarkadaren hasieran kaleratu ebana. Harek On Pedro Zelaiak sortutako Revista Eibar-ko hainbat zenbakittan kaleratutako datuak dira jarraixan doiazenak.

1930ian Eibarrek 12.874 biztanle bazi-ttuan, handik hamar urtera, 1940xan, 11.772 zittuan, hau da, 1.100 bizilagun gixiago. Zer gertau zan tartian? Gerria. 1920ko hamarkadan ordurako emondako inmigrazi-ña gelditu bazan (hor armen salmentaren krisixak izan zeban eragin gehixen eta bizikletekin eta josteko makiñekin ahalegindu ziran konpontzen), hurrengo hamarkadian, gerria tarteko, une katastrofikuak bizi izan zittuan Eibarrek eta, urte baten, 1936tik 1937ra, 13.431 biztanletik 9.126ra jaitsi zan gure herrixa, populaziñuaren herena galtzera, hain justu. Errekuperaziña be oso geldua izan zan eta 1945era arte ez zeban gaidinttu Eibarrek 1934an zekan populaziña. 1945ian 13.823 lagun bizi ziran hamen eta, orduetik, Eibarko industriak bihar zittuan lan egitteko besuen eskaera haundixa emon zan. Estadutik gero eta bizikleta, josteko makiña, erremin-ttak eta, batez be, ferreterixia eskatzen eskatzen eben, *"Eibar Espaiñiako erdigune ferreterua egin arte"*. Etengabeko inmigraziña bizi izan zeban orduan gure herrixak, industriarako asko eta baita eraikiñak (etxiak eta taillarrek) jasotzeko asmuarekin be. Igoera horrek populaziñuaren bihurtzia bertikala egin eban guztiz, *"kontrolatutako populaziñuarekin bakarrik"*; kontautakuak baiño gehixago bazirala jakinda, "enpadronatu gabeko asko tartian". Holan, 1945ian Eibarrek 13.823 biztanle bazittuan, 1955ian 23.636 zittuan eta, handik bost urtera, 1960xan, 31.870 izatera heldu zan, gaur egun baiño ixa 5.000 gehixago. Urte batian bakarrik, 1954tik 1955era, Eibarrek bere populaziña %24 igo zeban (4.682 biztanle gehixago. 1957ko datuak be ez dira nolanhikuak, orduan sortutako Estabilizaziño Planak ezarririk kontrol lanaren ondorioz jakingo zana: orduko hartan inmigrante kontrolatuak 3.000 izan baziran, udaletxian izena emon ez zebenekin urte hartan 6.000 izan zirala hona etorritakuak esaten zan. Zensuetan ez zeguazenetik aparte, kontu egin bihar da baeguazela gurera eguneroko bihargin-treñetan eta autobusetan fa-

Amañako etxiak egitten hasi ziranian irudixa.



briketara etortzen ziranak, gero arratsaldetan edo asteburuetan euren herrixetara bueltatzen ziranak. Garcia Manriqueren esanetan, *"30.000 biztanletik hainbat millatan gora egitten dau kopuru horrek, 11 urtetan Eibarren populaziña %100ian igotzeraiño"*.

Euskal Herritik eta estadutik

Eta nondik zetorren hainbeste jende? Gerria hasi aurretik Gipuzkuatik eta Bizkaitik zetozten gehixenak. Kantabrietik be tantaz tanta etorritakuak urtietan emon ziran, baiña jauzi haundixena galleguak etortzen hasi ziranian gertau zan gurian. 1946rako estadu osotik etorritako jendia jasotzen genduan, baiña handik 10 urtera Gipuzkuatik zetorren ohiko inmigraziña intensifikatu egin zan eta, horrekin batera, baita Galiziatik eta mesetatik etorritakuak be. Hau da, estaduko jendiari erreparatuta, hona gehixago etorri da mendebaletik eta erdialdetik eta gixiago hegoalde-tik eta ekialdetik.

1941.ian Gipuzkua eta Bizkaitik 111 lagun etorri baziran eta estadutik 90, 1957xan 831 ziran bi probintzietatik etorritakuak eta 2.072 estadukuak. Hori da, 201 lagun etortzetik 2.903 etortzeraiño. Kopurutik aparte, proporzioñuetan be alde haundixa dago: 1947ra arte euskaldunak gehiengua ziran moduan, ordu-tik aurrera estaduko jendia nagusittuko zan. Hórrek zer esan nahi daben? Ingurutik etorritakuak, antzerako mentalidadia izatiaz gain, karakterra eta hizkuntza be konpartitzen zebela. Euskeraz berba egittia ohikua zan sasoi hartan eta Santanderretik, Errioxatik, Nafarruatik eta Burgosetik zetozten gixixak *"ondo absorbitzen zittuztela bertoko herritarrak; eibartarrak sentitzen hasten ziran eta euskeria ulertzen zeben, berbarik egin ez arren"*. 1948raiño iraun zeban martxa horrek, 1957rako estadutik etorritako jendia euskal probintzietatik etorritakua hiru aldiz gaidintzen zebalako. *"Masa hori absorbitzia ezizkua egin zan eibartarrentzat, kanpotarrak osatutako herrixa inguratzen zeban gerrikuak herrixa guztiz aldatzeraiño. Kanpotik etorri-*

ttakuak -Orensetik geratu barik zetozen-, asko izatiaz gain, hamenguak eta Euskal Herritik etorritakuak baiño bizitasun demografiko haundixagua erakusten zeban".

Eibarko soziografia 1963an

Garcia Manriquek asko landu eban urte haietako gure herrixaren egoera soziala, sailkapen asko egiñaz. Holan, 1963an esaterako, Eibarren jaixotakuak ziran %67 Plaza 18 de Julion (gaur egungo Untzagan), %64 Ibarkuruzten, %55 Isasin, %52 Bittor Sarasketan, %50 Urkizu Pasialekuan, eta %40 Generalisimuan, baiña %15 Txontan. Etorritako inmigraziñuari begira, Plaza 18 de Julion euskaldunak gehixago ziran (%23) estadukuak baiño (%9) eta gauza bera Ibarkuruzten (%29 eta %6, hurrenez hurren). Generalisimon (%36 eta %23) eta Urkizun (%29 eta %21); Bittor Sarasketan kopuru horrek parekatzen zoiazan (%24 eta %23), Isasin estadukuak nagusitzen ziran (%25 %19aren aurrian) eta Txontan estadukuak gehixengo zabala ziran bittartian (%74) euskal probintzietatik etorritakuak %9 ziran. Bihargiñen kualifikaziñuari begira, Isasin (%60 kualifikatuak eta %18 kualifikaziñorik gabekuak) eta B. Sarasketan (%54 eta %16) ofizua bazekixela ikusten dan moduan, Txontan kualifikatuak %35 ziran, kualifikatu gabekuak %60ra iristen ziran bittartian. Plaza 18 de Julion eta Ibarkuruztekin antzerako kopuruak erakusten zittuen (%35 eta %11).

Burgesak baiño, bihargiñak

Herriko etxebizitzetan be fijatzen da Garcia Manrique. Berak diñuan, *"Bidebarrietan eta Maria Angelan Regiones Devastadasekuak jasotakuak sei pisukuak dira eta eraikitze-ko espazio asko galtzen dabe. Generalisimorekin Zuloagatarren eta Maria Angela lotzen dittuen arteko blokietan barruko patio haundixak dittue. San Juan eta Dos de Mayoko etxiak modernuenak dira, eraikitze-ko espaziua bihar dan moduan aprobetxatuta. Calbetonek etxe zaharrenak hartzen dittu eta, azkenik, Mekolako eta Arrate bideko tra-*

let alaiak dagoz". Autoriak begixa botatzen detsa etxeko bihargiñeri be. Berak aittatzen dabenez, "Eibar batez be bihargiña bada be, badira neskamiak hainbat etxetan. Hori bai, eibartarra espezializatutako obrerua da, ez akomodaturako burgesa". Zuloagarren kaleko etxietako %25ek zeken neskamia, Estaziñoko %19xak, eta Maria Angela, Ibarkurute eta Generalisimuan %15ian bueltan. Pisu altuetan emoten zan "degradaziñua" be

erreparatu zetsan egilliak: "Badago egoera kaskarrian bizi dan jendia. Generalisimuan, esaterako, seigarren pisu batian sei famelixa bizi dira bi pisutan; gero eta gehixago dira halakuak".

Industriari begira, Manriquek bi auzo industrial nabarmentzen dittu: ekialdeko edo Orbeako sektoria, eta mendebaldeko edo Isasi-Alfa sektoria. Sektore bixetan ematen dira hain ohikuak izan diran etxiak eta tailla-

rak eraikin berian egotia, "motorren zarata etengabiarekin eta leiho haundixeri esker ikusi ahal dan bihargiñen trajiñarekin". Atenziñua deitzen detsa, beste toki batzuetakuakin konparatu ezkeru, kualifikaturako bihargiñen kopuruak, %50etik gertu daguana. Aittaturako bi auzo horietan Eibarko tradiziñuari helitzen jakola diño Garcia Manriquek, "komertziotik gero eta gehixago bizi diran profesio liberaletan dihardutenekin batera".

53 ekitaldi 22 herrittan

Migraziñueri eta Kultura Ondarieri buruzko gogoeta egituko aukeria eukiko dogu Eibarren ez eze Gipuzkoako beste herri batzuetan be, asmo horrekin antolatu dittuen Ondarearen Europako Jardunaldixeri esker. Denis Itxaso Kultura diputatuak eta Ana Arrieta UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko erretoreordiak jardunaldixen aurkezpenian azaldutakuaren arabera, "jardunaldixak Europako Kontseilluak sustatu dittu, Europar Batasunarekin alkarlanian eta Gipuzkoako hainbat tokittan be egingo dira, iraila eta urrian, erakunde ugariaren parte-hartziarekin".

Asmo nagusixa "herritarren eta kultura-ondarearen arteko lotura ezartzia eta herritarrek ondare horretara sartzeko erreztasunak emotia" da eta, horretarako, atiak zabaltzeko egunak antolatu dittue. Eta horrekin batera, ondarea hobeto ezagutzeko, ulertzeko eta interpretatzeko gidak be banatuko dittue. Antolatzaillik diñuenez, "Europa osuan sekulako arrakasta izan dabe jardunaldixak eta Europako Kultura Hitzarmena siñatu eben 50 estatuek dihardute parte hartzen". Ildo horretan, Diputaziñoko Kultura Departamentuak Gipuzkoa osora zabaldu nahi izan dau jardueria, "bertako ondarearen hedapena eta ezagupena sustatziarren".

Aurkezpenian esan ebenez, "hautaturako gaixak migraziñomugimenduak arte eta kultura patrimonixueri zelan eragin detsen primerako aitzakixa eskintzen dau. Izan be, Europa kultu-



Jardunaldixotako eskuliburuetan erabillittako Eibarri dagokixon irudixa.

ra eta tradiziñuen mosaikua da eta, historixak agerixan laga desku migraziñomugimenduak, berdin detsa zein jatorrikuak izan, kultura-maillako aldaketak, nahasketak eta bat-egittiak eragiten dittuela eta horrek ondarean isla dakela". Horrelakuekin konturatzia, gaiñera, mesede haundixa egingo deskula pentsatzen dabe: "Kulturak daken balixua ulertzeko, partaide gara la sentitzeko eta baloreak partekatze orduan hórrek guztiak ezagutziak garrantzi haundixa izango dau. Izan be, aniztasunian komuna dana, batzen gaittuana eta lotzen gaittuana ezagutzi funtsezkoa da alkarbizitza eraikitze eta edozein bereizketa edo diskriminaziño modu baztertzeko".

Gestoria Alonso

618 25 93 44 San Agustin, 5 - behea
 943 20 20 17 mcalonsoeibar@gestores.net

Funeraria·Ehortetze
Mugica

<p>EIBAR</p> <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p> <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi</p>	

Urrezko bi eta zilarrezkoa Ipuruako gimnastentzat Gipuzkoako txapelketan

Aurreko domekan Ipuruako kiroldegian jokatuak federatutako eta oinarrizko taldeen arteko probintziako txapelketan, Ipuruako Kluba ordezkatu zuten hiru taldeek hobetu ezin den lana egin zuten: seniorrek euren mailakoa irabazi zuten moduan, beste biek lehenengoko bi postuak eskuratu zituzten oinarrizko infantil mailan. Elene Varela, Elena Sudupe, Natalia Arguiz, Malen Txurruka, Jennifer Hernandez eta Jugatxi Jimenezek osatutako seikoteak bost zintekin egin zuten ariketa, urrezkoa lortzeko bere mailan. Tania Nagornaia zuzendari duten teknikoek bi talde aurkezten dituzte aurten oinarrizko infantil mailan eta,

bost pare mazekin egindako lanaren ondoren, June Herdero, Lur Aranburu, Indira del Pino, Maddi Teran eta Enara Bilbao (Ipuruako 1) podiumaren gorenera igo zuten; maila bat beherago izan ziren Izaro Altuna, Sara Etxaburu, Sara Aranguren, Ainhoa Bizkarra eta Ana Portu (Ipuruako 2), taldekideen atzetik.

Azken bi talde horiek aurreko domekan, hilaren 2an, Leioan jokatuak Oinarrizko mailako Euskadiko txapelketan euren arteko postuak aldatu zituzten eta han Ipuruako 2-k eraman zuten urrezkoa, zilarrezkoa Ipuruako 1-entzat izan zen bitartean. Azaroaren 8tik 13ra Valadoliden jokatuak den Espai-



niako txapelketa dihardute prestatzen talde biek eta paraleloki jokatuak den oinarrizko banakako Kopan Alaitz Aranbarri kadetea izango da (Gipuzkoako txapelketa eta Euskadiko azpitxapelketa probintziako ordezkaririk bakarra izango da).

Aurretik, dena dela, Euska-

diko txapelketa absolutoa izango da jokoan domekan. Eta, hilabetea amaitu aurretik, hurrengo asteburuko zapatu eta domekan Euskalgym-a jokatuak da; eta, jakina, aurten inoiz baino lehenago izango den San Andres Torneoa, urriaren 29an.

Deltecoko triatloilariak Euskal Herritik kanpo ere lehiatzen

Aurreko asteburu luzea aprobetxatuz, Iñaki Serranok bere lehen Ironmana amaitu zuen Gandiako Ironmanean, Ibon Martinek Bartzelonako Triatloi Olinpikoan hartu zuen parte lesio larri batetik sendatu eta gero eta, azkenik, txarto ohitu gaituen Pello Osorok beste garaipen bat lortu zuen, oraingoan San Vicente de la Barquerako Sprint Triatloian.

Osorok denboraldi paregabea dihardu egiten eta proba gehienetan podiumean izan da, hainbatetan garaile postuan, eta ez dira gutxi izan bigarren postuarekin konformatu behar izan den probak. Aurreko asteko domekan, esaterako, Ermuko VII. Duatloia

bereganatu zuen eibartarrek, bigarrenari 10 segundoko aldea aterata. Proba sprint distantzian jokatu zen eta Euskal Herriko duatloi zirkuitoko azken puntuagarria izan zen. Bost kilometroko antxintxiketaldia, 20ko bizikleta gainekoa eta, amaitzeko, bi eta erdiko arineketaaldia osatzeko 58 minutu eta 36 segundo behar izan zituen Deltecoko ordezkariek. Emakumezkoen mailan, Saltoki Triki-deak taldearekin parte hartzen duen Aitziber Urkiola eibartarra laugarrena izan zen Ermukoan.



Judoak hartuko du kiroldegia bihar

Egun handia izango da biharkoa ekialdeko kirol modalitate horretako jarraitzaileentzat, goiz eta arratsaldean Ipuruako kiroldegian judo txapelketa bi jokatuak direlako. Goizeko 09:30ean hasita, 40. Nazioarteko San Andres judo txapelketa jokatuak da. Eta arratsaldeko saioa 15:30ean hasiko da, hor Eibar Hiria Emakumezkoen Nazioarteko XXI. judo txapelketa jokoan izango dela.

Katu-Kale ia pibotik gabe izango da bihar Lezon

Lehen kanporaketa gaudituta, gure herriko saskibaloia taldeak Gipuzkoako Kopan jarraitzeko erronka berriaren aurrean izango da bihar Lezon, 17:15ean hasiko den partiduan. Kurkubi SBK izango du aurkari Bekoerrotako kiroldegian eta ez du erraza izango torneoa jarraitzea, pibot posturako jokalaririk gabe dagoelako ia. Ibaik eta Mikel Lekunberri ezingo dute jokatu, arazo pertsonalak tarteko, eta Iker Hildagori lanak ez dio aukerarik emango bertan izateko. Mikel Sanchez min hartuta dagoenez, "taldeak bere zonaldea itxi beharko du inoiz baino gehiago eta defentsako lan bikaina egin".



Ibon Martin, uretatik irtetean.

Urrutikoetxea vs Altuna III.a Astelenako denboraldia zabaltzeko

Lau eta erdiko txapelketaren final laurdenetako ligaxkaren lehen jardunaldia-ekin zabalduko ditu ateak Astelena frontoiak pilota profesionalari dagokionez. Jardunaldiko norgehiagoka interesgarriena hartuko du, gainera, domeka arratsaldeko jaialdiko partidu nagusian, hor Urrutikoetxea gaur egungo txapeldunak Jokin Altuna azken udako torneoetako erregea izango baitu aurrean. Jaialdia berezia izango da oso, hiru buruz-burukoek osatuko baitute karteldegia: kaiolako txapelduna eta Amezketako "deabrua" hartuko dituen partiduaren aurretik Jaka eta Dario izango dira promozio txapelketan, nor baino nor,

eta partidu nagusia amaituta hor lehiatuko dute Elordik eta Ugaldek, horiek ere promozioetarako.

Eibarko Aspe enpresako ardura-dunek diotenez, "Astelena gure frontoia izaten jarraituko du eta, azken denboraldian bakarrik 14 jaialdi eskaini bagenituen ere, orain lehenago zabaltzen dugunez gehiago izango dira. Eta ikuskizun maila, jakina, ez da txikiagoa izango". Iaz hainbat berritze-lan egin ziren frontoian eta Sanandresak arte ez zuten jaialdirik eskaini eta kaiolaren barruko txapelketako norgehiagoka gehienak Eibartik



Jokin Altuna eta Mikel Urrutikoetxea, iaz Bilbon jokatu zuten finalerdiko pilota aukeraketan.

kanko geratu ziren. Domekarako sarrerak erreserbatzeko aukera dago 661-259-009 telefono zenbakira deituta.

Euskal Herriko hiru-txirlo txapelketa hasiko da bihar Barinagan

Txapelketa horrek lau jardunaldi izango ditu, hurrengo lau zapatuetan jokatzekoak arratsaldeko 17:00etan hasita. Mar-
 kina-Xemeingo Barinagakoari hilaren 22an Soraluzeko Ezozian jokatu denak jarraituko dio, handik astebetara Ziortza-Go-



lierbako Iruzubietan izango da hirugarren jaurtialdia eta, txapelketarekin amaitzeko, Elgetako bolatokia jokatu dute azken saioa azaroaren 5ean.

Urbateko nesken debut historikoa waterpoloan

Bidasoa izango dute aurkari domekan, 14:30ean, jokatu duten gure waterpoloaren historiako Ligako lehenengo partiduan. Azken urteotako ahaleginak bere fruituak eman ditu eta Urbaten emakumezkoen taldeak Euskal Herriko 1. Mailan debutatuko du. Senior mailako mutilen taldeak aurreko asteburuan hasi zuen Liga eta Larraina sailkapenerako aurkari zuzenarekin 17-13 galdu zuen Iruñean. Eibartarren taldea, hain gaztea izanik, "ofizio falta erakutsi zuen lehen laurdeneko 1-4koari eusteko". Nafarren presioaren igoera eta "epaileek gure aurka hartutako erabaki batzuk" ezertan laga zuten Urbatekoen abantaila. Ligako bigarren jardunaldia Orbean jokatu dute, neskek baino egun bat lehenago: zapatuan, ordu berean (14:30). Oraingo aukaria gogorregia izan daiteke, baina lehiatzea tokatzen da: Iruñeko UPNAko WP9802-k bisitatuko gaitu.



ARTXIBOA

Oraingoan Elciegon (Errioxan) Marques de Riscalen duen hotelean (Luxury Collection Hotel, 5 izar) gaur pasatzeko txartela (spa + vinoteca + gosaria barne)



 Gabonetako OTARRA Prezioa: 1€ Zbk:	Gabonetako OTARRA 2.000 €ko balioa duen Otarra Prezioa: 1€ Zbk:	 Fuskara Fikarlotza Prezioa: 1€ Zbk:
---	--	--

GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00) eta ETZIDAMU (20.00-21.00) KALEAN EROSTeko AUKERA

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

www.kolorlan.com 667 54 89 16 (Ritxar)



Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Mendilibarrek saria jasotzen duen Angel Villar Espianiako Foball Federazioko presidenteari eskutik.

Eibarrek aukera polita du Osasunarekin puntuak lortzeko

Astelehenean, 20:45ean, jokatu da Ipuruan jardunaldi honetako azken partidua eta hor Mendilibarren mutilek aukera izango dute Bernabeun eskuratutako puntuari balio bikoitza emateko "euren Ligako ei den" Osasunari irabazten badiote. Nafarrek hiru puntu dituzte bakarrik eta oraindik ez dute garaipenik eskuratu, Martin Monreal euren entrenatzailearen postua ere eztabaidatzen hasi den uean. Eibar FT-ren inguruko berri nahiko izan da azken aldian, kirolarekin lotutakoak ez badira izan ere; baina, normaltasunera itzulita, jokalaria guztiak jokatzeko prest ditu azken astean beste entrenatzaileek saritu duten Zaldibarko prestatzaileak.

Bestalde, Eibar FT-k Wiko enpresarekin elkarlanean eskolameendako (8tik 17 urtera artekoentzat) robotika ikastaro batzuk antolatu ditu, astelehenean hasiko direnak Ipuruako Formazio Zentroan.



Somos Eibarrek Egia liderra gainditu zuen

Ligako lehen jardunaldi bietan izandako porroten ondoren, hirugarrenean garaipena lortu zuten Fernando Fernandezek mutilek. Egia ordura arteko liderrari gol batengatik irabazitako partidua borrokatua izan zen oso (atsedendian 10-11 galtzen erretiratu ziren eibartarrak) eta azken emaitzera heltzeko garrantzi handia izan zuen Ander Ballesteros atezainak egindako lanak: "Berak eraman zuen taldea garaipene-

ra, egindako lan bikainarekin". Bestalde, Mikel Zabala taldeko jokalaria Espainiako jubenil mailako selekzioaren deia jaso du Frantzian, hilaren 23tik 30era arte, jokatu den nazioarteko torneoan parte hartzeko. Azkenik, eskubaloian jokatzeko gogoia duten LHko 5. mailako neska-mutilek aukera dute izena emateko urria amaitu arte (entrenamenduak San Andres ikastetxeko kantxan, eguaztenetan 19:00etan

Aitor Hernandez ermuarra bigarrean irabazle

Burgosko Fresno de Rodilla herrian jokatuak I. Encuentro de Caminos ziklo-kros proban nagusitu zen Specialized-Ermua Impulso taldeko txirrindularia. Eguaztenean jokatuak lasterketa guztian borroka handia egin behar izan zuen Ismael Estebanen aurka, azkenaurreko itzulian Esteban erori eta atzean laga

zuen arte. Ziklo-kroseko denboraldiko lehen proban, bestalde, Aitorrek podiumera igo zuen, baina hirugarren mailan izatearekin konformatu behar izan zuen. Urduña Hiria Sari Nagusia izan zen aurreko asteburuko proba hori eta Kevin Suarez irabazlearen eta Ismael Estebanen atzetik sailkatu zen ermuarra.

Astebete geratzen da Asier Cuevas herri-krosa jokatzeko

Hurrengo zapatuan, hilaren 22an, 18:00etatik aurrera jokatu den probarako astebete besterik ez da geratzen. Izena emateko behintzat, epe hori datorren barixakuan (21ean) amaituko delako; izena ematearekin batera, 10 euro ordaindu beharko da herri-lasterketan parte hartzeko. Eibarko kaleetan osatuko da zirkuitoa eta, urteroko ibilbideari jarraituta, oso gorabehera gutxikoa izango da. Eibarko Klub Deportiboak antolatzen du proba eta hasi ere Depor paretik hasiko da. "Asier Cuevas munduko eta Europako txapeldun-ordeari zure omenaldi partikularra egin nahi badiozu, apunta zaitez!" dio antolatzaileek kaleratutako esloganak.



MARIA GARAGARZA OSORO

1. urteurrena (2015-X-12)



Ez dugu inoiz ahaztuko zure begien dizdira.
MAITE ZAITUGU.

ETXKOAK



18. EDIZIOA ASTEBURUAN

Jardunaldi Mikologikoen adin nagusitasuna

Gaur arratsaldeko 19:00etan Klub Deportiboan Aranzadi Zientzia Elkartekoek eskainiko duten hitzaldiarekin hasiko da Jardunaldi Mikologikoen 18. edizioa. Eibarko Klub Deportiboak antolatzen dituen hiru eguneko jardunaldi ekiteko, Pedro Pasabaneke "perretxiko espezieak sailkatzeko datu basearen inguruan" hitz egingo du. Hitzaldia gaztele-raz izango da, "Base de datos para la clasificación de especies" izenburuari jarraituz. Antolatzaileek diotenez, "oso hitzaldi oinarritzkoa izango da eta, besteak beste, perretxiko onak eta txarrak bereizten irakatsiko du". Jakina, hasi berriei zein adituei zuzenduta dago.

Bihar kanpo lana

Zapatuan, baten faltan, bi mendi irteera egongo dira. Ikastolako ikasleek (8-14 adin tartekoak) aurretik ikastolan bertan emango dute izena eta Marieta aldera joango dira:

"80 bat lagun izango direnez, bi autobuse-tan joango dira". Hurrek (edozein adinetatik aurrera) eta gurasoek, bestalde, Otxandio Oleta auzora joango dira. "Deporren eman beharko dute izena alde aurretik eta autobus bat osatuko dugu", diote antolatzaileek. Aukeraturako bi kokapen horiek "erosoak dira gaztetxoak mendian ibiltzeko eta aproposak perretxikoak biltzeko".

Handik bueltan, "jasotako espezieen aukeraketa eta sailkapena egingo da Deporren", Aranzadikoen laguntasanarekin. Arratsaldeko dastaketa (pintxoa eta potea 2 eurotan) Toribio Etxebarria kalearen erdialdean jarriko duten karpan egingo da, 19:00etatik aurrera, eta pintxo horiek egi-

ten "inguruko taberna gehienek hartuko dute parte: Depor, Ongi Etorri, EzDok...". 20:00etatik aurrera musika izango dugu giroa alaitzeko, DeeVersions taldearekin.

Domekan begietatik

Besperan bildutako espezieak ikusgai ipiniko dira T. Etxebarria kalean goizeko 10:00etatik aurrera. Baina ez da hori izango gozamen bakarra, horrelako elikagaiak dastatzeko aukera paregabea izango dugulako. Alde batetik, Mikel Lasa hernaniarra hainbat produktu eskainiko dizkigulako eta, bestetik, Deporren dastatze-bazkaria emango dutelako egun horretan. Lasa saltzailea da izen handiko Ordiziako



azokan eta han perretxiko eta barazki postua du. Euskal Herri mailan ezaguna da, hainbat telebista saiotan agertu delako. Eta, azkenik, Deporren bazkarian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute biharko, zaturako. Helduendako plateraren prezioa 15 euro da eta haurren kasuan 8 eurokoa.

Domekako erakusketak zaletuen jakinmina asetzeko balio du.

Altxorraren bila

Perretxikoetara joatea altxorraren bila joatea bezala da; baina, horrez gainera, mahaian sari berezia jasotzen duen ahalegina da, usain eta zapore guttiz gozoak eransten baitzikiete jakiei. Halere, informazio ona behar da izan bi gauzaren gainean: lehendabizi, non eta noiz aurki daitezkeen jateko onak direnak, eta zer zuhaitzen ondoan egon daitezkeen; eta, bigarren, pozoitsuak eta jateko onak bereizten jakitea. Euskal Herrian 3.000 perretxiko-espezieetik gora dago, denak batera hartuta: jateko onak, pozoitsuak eta hilgarriak. Erraz ugaltzen dira, bertako basoen aberastasunari eta pribilegio naturalari esker. Hona hemen sailkapen bat:

BIKAINAK: onddo zuri, elur-bola, gorringoa, onddobeltza, udako onddozuria, onddo hankazorrotza, askabeltza, ziza horia, urbeltz galparduna, karraspina, galanperna, marasmio jangarria, tripaki argia, gibelarrosa goiztiarra, urretxa, gibelurdina eta boilurra.



ONAK: barren-gorria, makal-ziza, ahuntz-apoa, katilu laranja, saltsaperretxiko horia, udaberriko zizazuria, saltsaperretxiko beltza, tripaki argia, pagadi-eko zuriska, esnegorria (ohiko errobeloia), ziza hankaurdina, martxoko ezko, gardu-ziza, larramendi ziza, ziza hankamorea, bitigar sendoa, ziza orrillila, belarri landua, pinudi onddo-likina, ziza hankahoriska eta ziza arrea. **ONAK, ARRETAZ:** ardotsua, onddo hankagorria, San Martin ziza, pago-ziza, idi-mina, hankazuria eta bitigarra. **TOXIKOAK:** kuleto-paltsua (amanita muscaria entzuetetsua), azpibeltz tintausaina, lanperna, basoetako klitocibe zuria eta azpiarrosa maltzurra. **HILGARRIAK:** hiltzaile berdea (amanita phalloides ospetsua) eta hiltzaile konkorduna.



CARLOS SAGI
(konpositorea)

“Musika-bidaia batean goza dezake ikusleak gurekin”

Khami- Bazzque world sounds-en kontzertua egongo da Coliseoan hilaren 28an, 20:30ean. Iñaki Salvador, Kike Arza, Luis Gimenez, Garikoitz Mendizabal, Iraide Ansorena eta Carlos Sagi musikariek dago osatuta taldea. Albokak, txistuak, atabalak, panderoak eta bestelako instrumentuak nahasten dituzte, XXI.mendeko musika herrikoian oinarrituz. Antzinako doinuak, oraingoak, euskaldunak edota ez euskaldunak uztartzen dituzte, baina beti ere taldearen “esentzia gordez”, eta “bizipen unibertsalak” lotuz. Sarrera 8 eurokoa izango da.

- Zer da Khami?

Khami XXI. mendeko euskal musika herrikoian oinarritzen den proiektua da; euskal tradizio indartsuei eta Euskal Herriko fenomeno kulturaleri lotutakoa, beti ere, gaur egungo munduaren ikuspegi integraletik egina. Proiektu honen zutabe nagusia bere formazioa dela esango nuke. Musikari bakoitza belaunaldi eta toki desberdinetatik dator eta nazio mailako, nahiz maila internazionalako artistekin aritu da.

- Zer jasoko dute entzuleek zuegandik?

Sustrai herrikoietatik sortutakoa dela komunikatu nahi du ikuskizunak. Hain-

bat kontestu musikalen bitartez, euskal folklorea munduko beste folkloreekin parekatuz, euskal literatura eta dantzaren erreferentziak eginez edota euskal kantu herrikoiak orraztuz, adin guztietako ikusle onarpena izaten ari gara. Ikuskizunera datorrenak musika-bidaia batez gozatzeko aukera izango du lehenengo pertsonan. Gainera Eibarko ikuskizunean kolaboratzaile berezien sorpresak ere izango ditugu.

- Zein da Khami-k azaleratu nahi duen ideia?

XX. mendeko azken hiru hamarkadetan fusioa, mestizajea edota globalizazioa bezalako kontzeptuak mendebaldeko gi-

zartean nagusitu diren gezurrak izan dira. Geure buruari sinetsarazi dizkiogun gezurrak, eta nire iritziz, kolpe egiterik ez daukan “gizarte modernoaren” oinarri izan direnak. Uste dut identitate baten sorrera dibertsitatearen eta elkarrekiko erlazioen bitartez egiten dela posible eta Khami-rekin horrelako zerbait sortu nahi izan dugu. Geure erreferente propioak eta ez hain propioak berrinterpretatzen saiatu gara, ikuspegi zintzo ta artistiko baten bitartez. Horrela soinu propioak baina era berean sustraituak lortu ditugu. Gure ustez tradizioak edo modernitateak zentzua galtzen du askatasun, inplikazio artistiko eta transmisiorik gabe.



Kezkakoak Gernikako Juntetxean

Eusko Jaurlaritzak lehenengo Eusko Jaurlaritzak eratu zeneko eta Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu zeneko 80. urteurrena ospatu zuen aurreko asteko barixakuan, Gernikako Juntetxean hartu zuen ekitaldian. Besteak beste Urkullu lehendakariaren eta sailburuen parte-hartzea izan zuen urteurren ospakizunarekin hasteko, Euskal Herri osoko hainbat dantzariz osatutako ezpata-dantza egin zen, Gernikako Arbolapean eta bost lehendakariaren aurrean, eta tartean Kezka dantza taldeko hainbat kide izan ziren.

Ostalariendako kafe ikastaroa

Euskeraz Primeran! kanpainako Ostalariak Berbetan egitasmoaren barruan, kanpainari atxikituta dauden ostalari eta tabernarientzat kafe ikastaroa antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkartek. Saio bakarra izango da, urriaren 25ean, eta arratsaldeko 17:30ean hasi eta 19:00etan amaituko da. Ikastaroa emango duten Iñaki Querejazu eta Josu Abadek kafe on bat prestatzeko sekretuak eta eman beharreko pausoak azalduko dituzte eta, horrekin batera, kafe mota desberdinak (irlandesa, kaputxinoa, kafe-latte...) nola prestatzen diren erakutsiko diete parte hartzen dutenei. Izena emateko epea urriaren 21era arte egongo da zabalik (943 20 09 18 telefonora deituta edo elkarte@etakitto.eus helbidera idatzita).





Liburu Azoka zabalik

Gaur goizean zabaldu ditu ateak Eibarko Liburu eta Diska Azokak. Urriaren 23ra arte martxan izango den azoka Udalak eta Euskadiko Liburu Ganbarak antolatu dute, elkarlanean. Urteroko moduan, aurtan ere literatura eta musika arloan kaleratu diren lanik berrienak erosteko aukera ederra eskainiko dute, gainera ohiko prezioa baino merkeago. Asteburuan 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era zabalduko dute eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.



Zugastiren erakusketa domekara arte

Jose Zugasti artista eibartarrak Patxi Laskaray argazkilariarekin elkarlanean prestatutako "Biharra, arimakoa" erakusketa azken txanpan sartu da, domekan ateak itxiko ditu eta. Beraz, Portaleko erakusketa gela betetzen duten lanak ikusi nahi izanez gero, gaur, bihar eta etzi izango da bisitan joateko azken aukera, 18:30etik 20:30era.

Tomate-dastaketarako izen-ematea ixtear

Eguaztenean, 19:00etatik aurrera ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egingo den tomate-dastaketa saioan parte hartzeko izen-ematea gaur itxiko dute (943200918 telefonora deituta). Saioa euskara elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuarean) egingo da eta 3 euro balio du. Ortutik Ahora elkarteak Sergio Gonzalek gidatuko duen dastaketan hemengo tomate aldaerak ezagutzeko aukera izango da, besteak beste, eta, tomate motak ezagutzeaz gainera, probatu ere egingo dira, tomate bakoitzaren ezaugarriak ondo bereizteko.



Argazki erakusketa El Corte Ingles-ean

Urriaren 29ra arte egongo da "Flores de las Merindades. Un año de fotografía" erakusketa ikusteko aukera El Corte Ingles-eko ekitaldi aretoan, 11:00etatik 21:00etara. Jose Antonio Fernandez Perez argazkilariak erakusketaren izenburu berarekin liburua argitaratu zuen Burgos iparraldean dagoen Las Merindades eskualdeko loreei egindako argazkiak 220 orrialdetan bilduta eta horietako 60 bat ingururekin osatu du gurera ekarri duen erakusketa.



Jaialdia ludotekan

Gaur izango da Jazinto Olabe ludotekako inaugurazio jaialdia. Arratsaldeko 17:30ean haurrentzat jolasak egingo dituzte eta 18:15ean "Andonik mugitzen nau" DJ festa hasiko da. Animatu eta ez galdu ludoteka berria ezagutzeko aukera!



Digestioari buruzko hitzaldia

Eguaztenean, 19:30ean, "Sua gorputzean: bihotzerrea eta errefluxua. Prebentzio-irtenbide eta tratamendu-irtenbide berriak erasokortasun txikieneko kirurgia bidez" hitzaldia emango dute Poliklinika Gipuzkoa-ko Maria Navajas, Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoiatik Portalean, areto nagusian, Osasun Ikasgelak egitasmoaren barruan. Sarrera librekoa izango da.



Barixakuak Jolasian

Gurasoak Berbetan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen egitasmoaren barruan eskaintzen den Barixakuak Jolasian ekimenak ohiko martxari helduko diola eman dute aditzera antolatzaileek. Lehen saioa datorren astean, urriak 21ean egingo dute, 17:30ean ...eta kitto!n.

KZguneko ikastaroak

Azarorako eskaintza prest daukate KZgunean. Planifikatutako ikastaroen artean, besteak beste, "Oinarrizko Internet", "Smartphonak eta tabletak", "Ofimatika" eta "Sare sozialak" daude eta, horiekin batera, ikastaro berriak emango dituzte: "Bat bateko mezularitza Smartphonetan" (4 ordu), "Bizitza hobetzeko IKT-ak" (2 ordu) eta "Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean" (2 ordu). Ikastaro guztiak doan dira. Informazio gehiagorako www.kzgunea.eus webgunean begiratu, tutor.eibar@kzgunea.net helbidera idatzi edo 943 023 637 telefonora deitu.



LEIRE NARBAIZA

Matxitoak

Zerk bultzatu ahal dau gizon bat, hartu-emon sexuala izan, grabau eta lagun bateri bialtzera? Ze motibo egon leike jarduera intimo eta pribau bat lagunekin konpartitzeko? Ze satisfakziño euki leike personiak halako kontu batekin?

Bakotxak egin leike gura dabena bere intimidaduan, beti be konsetidua danian eta adin nagusikuen artian. Bakotxak dittu bere filixak eta bere fobixak, gustuak eta disgustuak. Hirukotian jardutzia sexu kontuetan ondo ikusten dot, gustoko izan ezker. Baiña txarto dago baimen barik grabatzia, eta txartuago neurri barik zabaltzen bada. Larrixagua, bakarmen eskaeria egin, eta barkamenik eskatzen ez bajako kaltia sufridu daben andrazkuari. Horrek ez daka izenik!

Esango neuke harrokerixa daguala autu honen guztionen atzian. *Matxotien* harrokerixia, arkerixia, berba baten. Munduari erakutsi nahixa ze *matxuak* diran, zelako balentrixia egin daben. Bakarrik falta dabe zutiñik jartzia eta ukabilekin bularran jotzia King Kongen moduan, eta orrua egin!

Ez gaittu harrittu futbolisten kontua izatiak, baiña aho bete hagin laga gaittu zale askok zelan defendidu diittuen jokalarixok: pribauan egitten danak ez ei detse eragin bihar foball karreran.

Ez deigun ahaztu feminismoak erakutsi deskula pribaua, publikua dala. Izan be, ez ete dau euki oihartzun handixagua bidiuak Eibar taldeko fubolistak ziralako? Ez ete da larrixagua personaje publikuak diralako? Baiezkuan nago.

"Makina eskua da" 30era arte Museoan

Armagentzaren Museoan ikusgai dagoen "Makina eskua da", Ibon Aranberri artistaren proiektuak piztu duen interesa ikusita, urriaren 30era arte zabalik jarraitzea erabaki dute arduradunek. Horrekin batera, dohaineko bi bisita gidatu antolatu dituzte. Lehena gaur izango da eta bigarrena, berriz, hilak 28an, egun bietan 18:30ean hasita (erreserba egiteko aldiriakafueras@dss 2016.eu helbidera idatzi). Artistak armagentzaren sektoreko eskola eta tailerretan egindako ariketak eta piezak bildu ditu eta horiekien erakusketa osatu du, museoan zehar ikusgai ipintzeko eta, Museoko arduradunek diotenez, "Aranberriren lanak ohikoa ez den publiko mota bat Museora erakartzea lortu du eta, uztailen



inauguratu zenez geroztik, bisitari kopuruak nabarmenki egin gu gora. *laz tarte horretan izandako bisita kopuruarekin alderatuz gero, aurten kopurua laukoiztera ailegatu gara*". Azaldu dutenez, "Aranberri bi erakusketa-tipologia bildu ditu espazio berean: egungo museoan ibilbide didaktikotematikoa eta lehengo erakusketa dibulгатiboen formalismo zurruna". Museoan dagoen

"Makina eskua da" Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren Bake-ituna proiektuko Aldiriak interbentzioen parte da eta Eibarko Udalaren, Armagentzaren Museoaren eta Armeria Eskolaren laguntza izan du. Museoa zabalik dagoen ordu-tegi berean ikus daiteke erakusketa: eguaztenetik zapatura, 16:00etatik 20:00etara eta domeketan, berriz, 10:00etatik 13:00era.

La Novenare-ren estreinaldia

Datorren egunean, 20:30ean "Rarezas sobre otras no tan raras" antzezlan aularatuko du estreinekoz La Novena taldeak Coliseoan. Ikasten taldeko bederatzigarren promoziotik sortutako antzerki taldeak eskainiko duen lana Ernesto Barrutiak moldatu eta zuzendu du eta parte hartuko du-



ten antzezleak Patxi Mutiloa, Jesus Perosanz, Eli Iriondo, Begoña Dominguez, Asun Sarasua, Araceli Bono, Vicen de Luis, Marivi Mendikute, Maribel Cascan, Luci Torrecilla, M^a Angeles Nagore, Mariaje Saez, Miguel Alberdi, Carmen Muruamendaraz, Jesus Martinez-Alcocer, Blanqui Martinez, Jesus Arizona, Isa Gonzalez eta Ernesto Barrutia dira eta Juan Luis Agirrek pianoarekin lagunduko die. Sarrerak 3 euro balio du.

San Andres bertso-paper lehiaketa

Abian da XXII. San Andres bertso-paper lehiaketa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Adinaren arabera maila bi bereiziko dira: 16 urtetik gorakoek (Euskal Herri mailan) 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez (10 gehienez) aurkeztu beharko dituzte; eta 16 urtetik beherakoek (Eibarko ikasleak), berriz, bertso bat edo bi kopia. Gaia eta doinua libreki izango dira eta lanaren hiru kopia aurkeztu beharko dira, gaitzizenaekin sinatuta (postaz bidali daitezke edo zuzenean ...eta kitto!-n entregatu). Lehiaketarako lanak azaroaren 7ra arte jasoko dira. Maila bakoitzean sari bi emango dituzte eta irabazleek azaroaren 27an, Portalean egingo den San Andres Bertso jaialdian jasoko dute saria.



Iazko ekitaldiaren sari-banaketako unea.



“Elkar-Bizi” egitasmoa ELGOIBARREN

Gizartean zabaldutako uste okerrak isildu eta gogoeta egitera bultzatu nahi gaitu egitasmo horrek. Hainbat hitzaldi, tailer eta ekimen antolatu dituzte nagusi zein umeentzat. Gaur, barixakua, *El Cairo 678* filmaren harira solasaldia antolatu dute Haizea emakume taldekoek. Loredi Salegik gidatuko du saioa, 21:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Kafea pastekin eskainiko dute. Eta bihar, zapatua, Munduko arrozen dastaketa izango da. 12:00etan, Maalan.




Sidecars taldearen kontzertua ERMUAN

Gaur, barixakua, kontzertua eskainiko du Sidecars talde madrildarrak Ermuko Antzokian, 22:15etik aurrera. Musikan 10 urteko ibilbidea duen taldeak, “Contra las cuerdas” disko berria kaleratu du aurten eta, uda honetan kontzertu ugari eskaini ondoren, gaur gauean Ermuko Antzokiko taula gainean izango dira. Proposamen berri honetan taldeko kantarik famatuena berreskuratu dituzte, soinu eta espiritu berri batekin eta formatu akustikora moldatuta, baina taldeak duen rock puntua ahaztu gabe.

Sexualitateari buruzko ikastaroa SORALUZEN

“Sexu eta genero sistema. Oinarrizko edukia” ikastaroa antolatu du Korner Morea kolektiboak biharko, zapatua. Horrekin batera, Gaztetxeak egun osoko egitaraua antolatu du “Zapatuak Gaztetxean” izenburupean. 14:00etan bazkaria egingo dute eta gauean Garrasi taldearen kontzertua eta Dj saioa egongo da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Milagros Arrieta Azkarraga. 80 urte. 2016-X-6.
- Lola Añibarro Ojaguren. 93 urte. 2016-X-8.
- Jesus Berasategi Izagirre. 89 urte. 2016-X-10.
- Iñaki Aginaga Baskaran. 81 urte. 2016-X-12.

jaiotakoak

- Martina Aizpitarte Martin 2016-X-5.
- Agatha-Maria Brito Loor. 2016-X-5.
- June Ruiz Rodelgo. 2016-X-8.
- Artzai Lizarralde Fernandez. 2016-X-11.

farmaziak

- Barixakua 14
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 15
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Domeka 16
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Astelehena 17
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Martitzena 18
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Eguaztena 19
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- Eguena 20
EGUNEZ **Castafio** (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 21
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

4	9	8	6	3	1	7	5	2
5	2	1	7	9	8	4	3	6
7	3	6	5	4	2	1	8	9
6	5	7	3	1	9	2	4	8
1	4	9	8	2	7	5	6	3
2	8	3	4	6	5	9	7	1
8	1	4	2	5	6	3	9	7
9	6	5	1	7	3	8	2	4
3	7	2	9	8	4	6	1	5

SUDOKUA

2	9					1		
8	5	7				3		
1							7	8
7				1				
3			9		8			5
				4				1
4	2							3
			4			8	6	7
		9					1	2

Barixakua 14

LIBURU AZOKA

17:30/20:30. Eibarko Liburu eta Disko azoka. Untzagan.

JAIALDIA LUDOTEKAN

17:30. Jazinto Olabe ludotekako inaugurazio jaialdia. Haurrentzat jolasak.
18:15. "Andonik mugitzen nau" DJ festa. Jazinto Olabe ludotekan.

BISITA GIDATUA

18:30. Ibon Aranberriren "Makina eskua da" erakusketara. Armagintza Museoa.

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

19:00. Perretxikoen inguruko hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkartearen Pedro Pasabanen eskutik. Klub Deportiboan.

ZINE-FORUMA

18:30. "Las chicas de la lencería" filmaren inguruan, Izaskun Rodriguez Elkorok gidatua. Portalean.

GAZTA ASTEA

19:30. Idiazabal Jatorri Izendapena duen gazta dastaketa gidatua, M^a Victoria Urrestik zuzenduta. Udaletxean.

DANTZA

20:30. "Hooked (Still)" dantza ikuskizuna. Coliseoan.

Zapatua 15

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

08:15. Haur eta gurasoen mendi irteera, perretxikoak biltzera (Ego Gaietik). Jasotako espezieen aukeraketa eta sailkapena, Aranzadi Zientzia Elkarteak lagunduta. Deporren.

18:00/22:00. Perretxiko-pintxoaren dastatzea (herriko hainbat tabernetan).

20:00. DeeVersions taldearen kontzertua. Toribio Etxebarria kalean.

BAZKARI SOLIDARIOA

11:00/16:00. Bidezko Merkataritzako elikagai eta produktuen salmenta eta informazioa.

12:00. APPROCAP elkartearen txokolate degustazioa eta salmenta. Sukaldaritza tailerra umeentzat.

12:45. "Badut" ipuin kontalari saioa.

14:00. Bazkari Solidarioa. Zozketa, bertsoak, Los Soraluzeños eta Mugi Panderoa. Untzagan.

1966-KOEN BAZKARIA

13:00. Talde argazkia. Untzagan.

MANIFESTAZIOA

15:00. "SARE-k deitua Donostian egingo den manifestaziora joateko autobusaren irteera. Ego Gaietik.

KONTZERTUA

22:00. Rock kontzertua, Eroa Naizen, Garrapata eta The Rockos taldeekin. Txaltxa-Zelaian.

MONOLOGO SAIOA

23:00. Paramount Comedy-ko Stephyy Llaryora. Astelena gastrotekan (Estaziño, 7).

Domeka 16

JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

10:00/14:00. Perretxiko erakusketa eta produktu mikologikoen salmenta (Mikel Lasa). T. Etxebarrian.
14:30. Perretxiko dastatze bazkaria. Klub Deportiboan.

GAZTA ASTEA

11:00. Debarreneneko Gazta Azoka eta erakustaldiak. Untzagan (karpan). Mandiola Goikoa baserriko artaldea Matsariara ailegatuko da (11:00etan) herriko kaleak zeharkatzeko, Untzagaraino.

Martitzena 18

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

LITERATURA TAILERRA

18:30. "Emakumeen historia" tailerra, Leticia Martinez Alcocer-en eskutik. Sarrera librea eta doan. Portalean.

IKASTEN

19:00. "El Barbero de Sevilla" operara joateko autobusaren irteera ordua, Ego Gaietik.

Eguaztena 19

IKASTEN

10:12. Zarautz-Zarautz mendi-ibilaldia (Bista Alegretik Getarira). Bazkaria eraman behar da. Trenaren irteera ordua, Ardantzako geralekutik (10:14 Estaziñotik).

EH-BILDU AUZOETAN

17:00. EH Bilduko ordezkarien bisita Jardifñeta eta Matsariara.

TOMATE-DASTAKETA

19:00. Tomate-dastaketa saioa, Ortutik Ahora elkartearen eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19:30. "Sua gorputzean: bihotzerrea eta errefluxua. Prebentzio-irtenbide eta tratamendu-irtenbide berriak erasokortasun txiikieneko kirurgia bidez", Policlinica Gipuzkoa-ko Maria Navajas, Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoitoren eskutik. Sarrera librea. Portalean.

Eguena 20

IKASTEN

18:00. Dantzaldia. Untzagako jubilatuei etxean.

JARDUNALDIA

18:00. "Migrazioak eta kultur ondarea" (Ondarearen Europako jardunaldiak). Armagintzaren Museoa.

ODOL-ATERATZEA

18:30. Odola ateratzeko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

ANTZERKIA

20:30. "Rarezas sobre otras no tan raras", La Novena antzerki taldearen lanaren estreinaldia. Coliseoan.

Erakusketak

Urriaren 16ra arte:

– JOSE ZUGASTIREN "Biharra. Arimakoa" erakusketa. (Portalean)


Urriaren 29ra arte:

– IBON ARANBERRIEN "Makina eskua da" erakusketa. (Armagintzaren Museoa)
– JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki-erakusketa. (El Corte Inglesean -ekitaldi aretoan-)

Urriaren 31ra arte:

– GOTZON IRAZOLAREN perretxikoen munduko argazki-erakusketa. (Klub Deportiboan)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UNAI Arteaga Zarrua, hiliarren 20xan urtetxua beteko dozu-eta. Maittagarrixena zara!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IZARO, astelehenian zortzi urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL Colmenero Peral, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI, mutil haundi, astelehenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau, aitta, ama eta etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, bixar zazpi urte egingo dozuz-eta. Patxo erraldoia famelixaren eta, batez be, Eleneren partez.



Zorionak, INHAR, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko danon eta, batez be, Libe eta Martxelen partez.




Zorionak, EDU (hiliarren 16xan) eta ITZA (23an). Oso ondo ospatu urtebetetziak eta musu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JAIONE eta MARA!! Oin arte bezain jator eta alai jarraitu, bikote! Patxitua eta besarkadia, famelixaren partez.



Zorionak, JAKES (urriari, 8 urte) eta UNAX (abuztuan, 3) urtiak bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PERU (domekan egingo dozuz urtiak) eta aitxixa ANTONIO (hiliarren 5ian egin zittuan). Patxo pillua etxeko guztiaren partez. Eutsi bixok gaur bezain eder.



Zorionak, MADDI, sorgintxo, atzo zazpi urte egin zenduazelako. Etxekuen eta, batez be, JARAREN partez.



Zorionak, PAUL Urizar Arruti, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LAIA, martitzenian hiru urte bete zenduazena-eta. Musu potolo pillua etxekuen partez.



Ongi etorri, ARTZAI, urriaren 11tik gurekin zagoz-eta! Koikilli li-lluratuta dakazu!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
15ean: 19:45
16an: 20:00
17an: 20:30

"Un monstruo viene a verme"
 Zuzendaria: J.A. Gª Bayona



(2 ARETOAN)
15ean: 17:00, 19:45, 22:30
16an: 17:00, 20:00
17an: 20:30

"Florence Foster Jenkins"
 Zuzendaria: Stephen Frears



(ANTZOKIAN)
15ean: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30⁽¹⁾
16an: 17:00⁽¹⁾ (1 Aretoan), 20:00
17an: 20:30

"Inferno"
 Zuzendaria: Ron Howard



(ANTZOKIAN)
15ean: 17:00
16an: 17:00
"Buscando a Dory"
 Zuzendaria: Andrew Stenton



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarren, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Pertsona arduratsua. Tel. 695-716229. Amaia.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 608-588444.
- Logela alokatzen dut Amañan, etxe guztia erabiltzeko eskubidearekin. Familia giroa. Tel. 632-607193.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 625-019711.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Ipuruan, foball-zelaiaren bidean. Tel. 680-871529 eta 943-256110.

3.2. Errentan

- Eibar erdian ezinhobeto kokatutako kirol-zentroan (Ugan Klub - F. Calbeton, 11) fisioterapia lanetan jarduteko gela alokagai. Tel. 943-820452. Edo utzi mezua: ugan-klub@gmail.com
- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean (Txomo eta Abontza artean). Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Ubitxa inguruan. Kalera-ko irteera zuzena. Bulego, lantegi edo tailer txikirako aproposa. 70-150 m². Tel. 617-688311.
- 18 urteko gorako gazteentzat aukerako lokala alokagai. Ondo prestatutakoa. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-074529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-781587.
- Emakumea eskaintzen da 17:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-528936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-988471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 673-028698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-722291.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik 21:00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 686-064608.
- Neska eskaintzen da 15:00etatik aurrera etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-802772.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Externa. Tel. 671-763558.

- Emakumea eskaintzen da zapatu eta domeketan nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 642-381844.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 660-290237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 616-234656.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko baita dendari jarduteko ere. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-852095. Maria Olivia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Formakuntza Geriatrian. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-222798. Jessenia.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-258341.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 620-461322.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 637-191540.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-191832.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-916761.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 674-901599.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da emakume nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-973549.
- Geriatriako laguntzaile arduratsua eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Baita gaeuz eta ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 660-511781 eta 943-742330.
- Neska eskaintzen da publikitatearen banatze eta garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 632-280947.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-175581.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-191397. Aida.
- Neska arduratsua euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 667-940741.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Baita arratsaldean ere. Tel. 675-215025.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 632-518437.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserri lanetarako. Tel. 634-830423.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean (13:00etatik aurrera) umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-190614.

4.2. Langile bila

- Mekanizatu bidezko produkzioan hezitako jendea behar dugu. Esperientzia baloratuko da. Bidali kurrikuluma: rrrh@epcge.com
- Artezte makinetan esperientzia duen ofiziala behar da, makina prestatzeko ohiturarekin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali kurrikuluma 177 posta kutxatilara (20600 Eibar) edo rectificadorexteriores@hotmail.com
- Sukaldari laguntzailea behar da asteburu-eratarako jateke batean. Bidali kurrikuluma 279 posta kutxatilara (20600 Eibar).
- Emakume euskalduna (30-50 urte artekoa) behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-781942.
- Banatzailea behar da ordezkapenak egiteko. Autoa gidatzeko baimena beharrezkoa. rrrh@vinoconsolera.com
- Estetizista behar da Eibarko zentro batean. Bidali curriculum-a: esteticieneibar@gmail.com
- Eibarko enpresa batek artezteile konbentzionala behar du. Bidali curriculum-a: rectificador.eibar@gmail.com
- Fisioterapeuta edo kiromasajista behar da Eibarko ilepaindegi batean. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Errusierako irakaslea behar da. Tel. 678-883025.
- DBH4ko klase partikularrik etxean eman go ditzkidana behar dut: gai guztiak orokorrean. Tel. 636-523804.

5.2. Eskaintzak

- MDBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
- Irakasle-masterra duen neska eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrik emateko. Tel. 699-495279.
- Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Piano elektrikoa salgai. Egoera onean. Tel. 658-756514.
- Bikiendako silla eta autoan umeak eramateko bi jarleku salgai. Tel. 616-909630.
- Bikiendako (6 hilabetera arteko neskek) erropa salgai. la berria. Tel. 660-805301.
- Alfonbra salgai (1,99 zabalera x 2,93 luzeera). Tel. 656-794762.
- 0,90eko sukaldea salgai, gas bonbonak eramatekoarekin. Baita 0,90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.

6.4. Bestelakoak

- Dantza egiteko mutilaren zapatak behar ditut. 44 zenbakikoak. Tel. 676-556739.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gozamina.



#changeisgood

ABC 2016
MEJOR COCHE

Hyundai Tucson Berria.
2016 urteko auto
onena Espainian.

Aldaketaren alde egin genuen eta irabazi egin dugu. Sari handi bat lortu dugu: 2016 Urteko Auto Onena izatea Espainian. Auto handi batendako saria, baina batez ere jarrera batendako. Hyundai Tucson Berrian apostu desberdina ikusi dutenei esker.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean

 NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17

943 74 14 80



Hyundai Tucson Gama:
CO₂ Emisioak (gr/km):
119-175. Kontsumo mistoa
(l/100 km): 4,6-7,5

ZER DA

BIZILAGUNAK?

Hemen bertako familia eta norbanakoak atzerritik etorritako familiekin elkartu eta azaroaren 14ean elkarrekin bazkaltzea helburu duen gitasmoa da.

Elkartze horietako bakoitzean bertoko familia batek, familia etorkin batek eta dinamizatzaile batek hartuko dute parte.

2012. urteaz geroztik 4.000 lagunetik gora izan dira Euskadin ekimen horretan parte hartu dutenak. Aurten esperientzia aberasgarri honetan zeuk ere parte har dezakezu!

Bertokoa baldin bazara, edota zeure bikotekidearekin edota familiarekin hemen bizi zaren etorkina bazara, eta bazkari horietako baten bitartez zeure hiri edo herriko beste familia bat ezagutu nahi baduzu, anima zaitetz!

BIZILAGUNAK



AZAROAK 13 |  **13:00**

NOLA?

GONBIDATUA: gonbidatzailearen etxean bazkalduko dut

GONBIDATZAILEA: sukaldatu eta etxean hartuko ditut

Izen-ematea: 943 20 09 18 / ongietorri@etakitto.eus



gama altuko
2 m^o betaurreko
progresibo

197€

Gure betaurreko
guztiak 2016
bildumakoak dira

www.multioplicasgipuzkoa.com   

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan